

TOKIKOM

2020ko uztaila | 205. zenbakia

ai!kor!

txorierriko aldizkaria

Zamudioko Rallya
Osasuntsu dabil





euskara praktikoa

Txorierriko Txepetxa AEK euskaltegia

Maila guztiak: A1, A2, B1, B2, C1

**Talde txikiak eta giro ona.
Eskarmentu handiko irakasleak**

Herrian bertan ikasteko aukera

Autoikaskuntza

Online ikastaroak

Matrikula zabalik irailaren 27ra arte

Gorbea kalea 5, beheak, Derio

94 454 39 67 / 607 59 87 94

txepetxa@aek.eus

DIRULAGUNTZAK

HABE

Maila egiaztatuta

BIZKAIKO ALDUNDIA

Euskara-eskura txartela

**TXORIERRIKO
MANKOMUNITATEA**

**LARRABETZUKO
UDALA**

-  **4** Eretxiak
-  **5** Laburrak eta albisteak
-  **12** Aterperik ez, Done Jakue bidean
-  **14** Gaztea eta... Ainhoa Lekerika, artista
-  **16** Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea
-  **20** Zamudioko Rallya: Txus Jaio
-  **26** Kukuke antzerki eskola
-  **28** Babestutako edukia: Ankapalu Berria
-  **30** Joaquín Carmona
-  **32** Jairik gabeko uda
-  **34** Teknologia... Bozketa digitala
-  **35** Aikorrizketa... Geure barruan otso bi ditugu
-  **36** Sukaldaritza
-  **37** Denborapasa
-  **38** Agenda



30 Joaquín Carmona



32 Jairik gabeko uda



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia



diruz lagundutako aldizkaria



Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa (Lagatzu, Zorritzetan, Arrekikili, Tximintx komunitatea eta Altzora)
Tel.: 94 452 34 47 / 688 86 41 35
aikortxori@aikor.com /
www.aikor.eus



Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Maite Lekerika, Gaizka Eguzkitza, Juan Luis Goikoetxea

Kolaboratzaileak: Eder Merino, Jon Ander Rola, Peru Iparragirre, Josu Uribe, Idoia Andres, Gaizka Peñafiel eta Ana Galar

Zuzentzaileak: Joseba Butroe, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Estitxu Perez (688 782 642)

Banaketa: Egunon

Maketatzailea: Gaizka Eguzkitza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 8.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

Azaleko argazkia: Josu Uribe

Aikor! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eretxien erantzukizunik

Pandemiaren gauerokoa

1. eguna

Eusko Jaurlaritzak agindu du hurrengo egunetik aurrera, eta gutxienez 15 egunean, ikasleak ezin izango direla ikastetxera etorri, eta prestatu behar dugu eskolak etxetik emateko. Horrek kezka eta ardura sortu dizkit, baina lehen uneko ezustekoaren ondoren alde on batzuk ere ikusi ditut: tresna digital berrietan arakatzeko posibilitatea, pilatuta ditudan liburuak irakurri...

2. eguna

Denok etxetik atera gabe egon behar dugula adierazi dute. Gauean, etxerantz etorri naizenean, auzoko taberna guztiak lepoz beteta ikusi ditut, zabalik egongo diren azken orduak diren seinale.

3. eguna

Goizean, egin ahal den irteera bakarra (ogia erosi) egitera joan naiz, eta ilara itzela dago okindegiaren kanpoaldean. Gurasoek eta aitita-amamek hainbestetan kontatu diguten errazionamendu-garaia datorkit gogora.

4. eguna

Eguneroko irteera bakarra egitera noa la udaltzain bat ikusi dut gazte batzuei

errieta egiten auzoko guztiak entzuteko tonuan.

5. eguna

Ez daukagu txakurrik. Gurean zaborra botatzea da irteteko aitzakia bakarra.

6., 7., 8... egunak

Altxatu, gosalduta, ikasleen e-mailak irakurri eta erantzun, meet bidezko bilerak ikasleekin, bazkaria prestatu, berriro eskolak ematera eta prestatzera, txalotzera ateratzeko irrika... Egun guztietan, berdin. Imajinatzen dut preso batek espetxean sentsazio berdinak edukiko dituela.

10. eguna

Osaba eta izekoa, hainbat egunetan etxean gaixorik egon ondoren, ospitalera eraman eta birusa dutela baieztatu dute. Berri gogorra, eta are gogorragoa amarentzat, bere etxeko bakardadean.

20. eguna

Berri ona: osaba eta izekoa ospitaleko ziegatik etxeko ziegara pasa dituzte. Hori bai, gela banatan, inorekin kontakturik eduki gabe, isolatuta. Nire lehengusina izango da euren kartzelazain partikularra.



JON ANDER ROLA
Irakaslea

60. eguna

Datorren astean ikastetxera itzuli beharko dugula jakinarazi digute. Ikasleekin komentatu dut eta bueltatzeko irrika dutela esan didate. Ez ikasteko, ikaskideekin eta irakasleekin harremanak berreskuratzekeo baizik. Horretarako ere baita ikastetxea. Ados nago ni ere bai.

Laburbiltzeko, <https://labur.eus/79U-mi> bideoan argentinarra sentitzen den moduan sentitzen naiz ni.

Por zierto, irakurleen artean Euskaltzaindiakorik balego... nire amak "mascarilla"ri *mozala* deitzea erabaki du.

Bere balio erantsia zein zen galdetu zion. Segurtasunari eta begiradari tinko eutsi zien.

Institutu garaiko oroitzapenak etorri zitzaizkion burura: barreak, etxera bideko urduritasuna eta pare bat txistukada. Ukabilkadarik ez egun hartan, eskerrak. Jakin bazekien zerk kondenatzen zuen sufrimendu hartara: maskulinitate hegemonikoaren aurrean errebelde izateak eta gizonekin larrutan egiteak. Baina zergatik bera? Eta noiz arte?

Orduan otu zitzaion. *Hiyaba* zeraman neskak ere aldiro-aldiro jasaten zuen bere bizimoduaren kontrako irainen bat; han, izkinan eseritako mutil ijitoek, hainbeste alditan entzunda, atzerakoitzat zuten beraien kultura. Kalea gurutzatzen zebilen emakumeak, ordea, bere loditasunaren inguruko komentario lizunekin

Balio erantsia

borrokatu behar zuen maiz. Eta ez, ez dira fobiak: gorrotoaz dute gehiago beldurrez baino.

Bekokia argitu eta bat-batean erantzun zuen: "Nire balio erantsia nire zauria da. Goitik behera eta ezker-eskuin zabal-zabalik nago. Ezarritako arau eta bizi-estiloen aurrean intsumiso izanagatik ertzetara bideratu naute. Eta ertzetan borrokatzea baino ez dago. Borrokatu eta erresiliente izan, min hori etorkizuneko laguna izateko. Hori da nire zauria eta, hortaz, hau nire balio erantsia".

Begiradari eutsita, irribarre batek zeharkatu zuen bere aurpegia. Zauria mahai gainean jarri zuen eta, orain, inoiz baino harroago sentitzen da.



EDER MERINO
Irakaslea

Bizkaiko Bertsolari Txapelketarako sailkapen-faseko saioetariko bat Derion izango da irailean



a: Bizkaiko Bertsozale Elkartea

Bizkaiko Bertsolari Txapelketarako sailkapen-fasea maiatzaren egitekoa zen, baina COVID-19ak sortutako osasun-alar-maren ondorioz bertan behera utzi zen. Bizkaiko Bertsozale Elkartek adierazi duenez, sailkapen-fasea irailean izango da. Orotara 60 bertsolarik eman dute ize-na eta 10 saio egingo dira: saioetariko bat irailaren 24an izango da Derion.

Aurten, aldaketak egongo dira sailkapen-fasearen egitura eta bost egu-netan 10 saio jokatu dira. Hala, egun eta ordu berean saio bi egingo dira herri bitan. Antolatzaileek hurrengo egutegi hau prestatu dute: irailaren 16an, Oroz-kon eta Lekeitio; hilaren 17an, Getxon eta Busturian; hilaren 18an, Markina-Xemeinen eta Berangon; hilaren 23an, Muxikan eta Berrizen; eta hilaren 24an, Zallan eta Derion. Saio guztiak 18:30ean izango dira.

Derioko saioa Gurea Aretoan egingo da eta bertan bertsolari hauek arituko dira bat-batean: Aissa Intxausti Aburruza (Lekeitio), Eneko Barruetabeña Bilbao (Durango), Iker Apraiz Solaguren (Atxon-

do), Josune Aramendi Perez (Markina-Xe-mein), Lurdes Ondaro Mallea (Munitibar) eta Mikel Retolaza Etxebarria (Busturia).

Sailkapen-faseko sarrerak txartelde-gian bertan erosi beharko dira, ez baita aurretiaz salduko. Txarteldegia saioa hasi baino ordu erdi lehenago zabalduko da eta sarrerak hiru euro balioko du; hala ere,

bazkideek euro bi ordainduko dute eta 16 urtetik beherakoak doan sartu ahalko dira. Faseari buruzko informazioa elkar-tearen webgunearen bidez (www.bertsozale.eus) eta gizarte-sareen bidez eskura daiteke.

Txapelketa

Bestalde, aldaketarik ez, Bizkai-ko Txapelketa urrian hasiko da eta sei kanporaketa, hiru finalurreko eta finala izango ditu. Kanporaketetara 2016ko fi-nalistak eta 2018ko finalurrekoetan ibi-litako bertsolariak sartuko dira zuzenean; eta finalurrekoetara, 2018ko finalistak. Kanporaketetako zein finalurrekoetako saio bakoitzean sei bertsolari arituko dira; finalean, berriz, zortzi bertsolari. Onin-tza Enbeitak txapela jantzi zuen 2018ko txapelketan, eta buruz burukoa Etxahun Lekue larrabetzuarrarekin jokatu zuen. Malen Amenabar larrabetzuarra Igorreko finalurrekoan hartu zuen parte eta lau-garrena gelditu zen.

Antolatzaileek txapelketaren talde teknikoaren garrantzia azpimarratu dute eta horretan txorierriarrak ere badaude. Talde antolatzailean, esaterako, Joseba Etxebarria larrabetzuarra dago, eta komu-nikazio-taldean, Malen Amenabar. Hala-ber, Leire Etxebarria larrabetzuarra epaile ibiliko da.



Zentzumen-ibilbidea Larrabetzun

Larrabetzuko Umeen Kontseiluak zentzumenei lotutako ibilbidea atundu du udarako. Horrela, ukimena, usaimena, dastamena, ikusmena eta entzumena zorrotz, herriko hainbat gune gozatzeko proposamena egin die herritarrei.

Besteak beste, ordua jotzean dagoenean eliza aurrean begiak itxi eta kanpai-hotsak aditzeko aholkua eman dute; eraikin zaharretako harrien koloreei eta formei erreparatu; Gaztelumendira igo eta ikuspegiak disfrutatu; Goikolexea ondoko errekatxoan oinak eta eskuak busti; Belarrinaga inguruko zuhaitzen enborrak ukitu; eta lorategiei begiratu eta usaindu. Era berean, euren zentzumen-esperientzia izatera animatu dituzte larrabetzuarak. Zentzumen-ibilbidea eskuorri batean jaso dute eta hori udal-txean, liburutegian, okindegian eta estankotan dago eskuragarri.

Lazaro, hirugarrena Leonen

Uztailaren 11n eta 12an, Espainiako Trial Txapelketaren lehen proba izan zen Leonen eta Iñigo Lazaro zamudioztarra hirugarrena izan zen bertan. Lazaro oso pozik azaldu da, Espainiako txapelketan podiumera lehen aldiz ailegatu da eta.

Zamudioztarra 35 urtetik gorako beterranoen kategorian lehiatu zen beste 17 trial-piloturen aurka. "Bazen podiumera igotzeko garaia. Oso lorpen handia izan da niretzat, halako probetan jendea oso prestatuta dagoelako eta «euren onena eta gehiago» ematen dutelako. Gainera, kontuan hartu behar

da nik 52 urte ditudala eta askoz pilotu gazteen aurka aritu naizela". COVID-19a dela eta, oso segurtasun- eta osasun-neurri zorrotzak ezarri ziren proban eta parte-hartzaileek, besteak beste, maskara jantzita egin zuten proba gehiena. "Gogorra izan zen, ia 40 graduan geunden eta".

Ahal dela, Espainiako txapelketaren hurrengo proba Galizian izango da irailan eta Lazarok espero du han parte hartzea. Adierazi duenez, ahalegina egingo du podiumera berriro igo ahal izateko. Bestalde, Lazarok Zamudio Racing elkar-tearekin eskertuta agertu da emandako babesagatik eta laguntzagatik.



AmAr
ileapaindegia

Asteartea-ostirala:
9:00-19:00
Laburubata:
8:00-13:30

Urbe plaza, 1 behea
Zamudio
94 4520419

Txinbo kalea, 9
48170 ZAMUDIO
94 452 26 75

CAFE-BAR
BIDE-GORRI

Askotariko pintxoak - Plater konbinatuak
8:00etatik irekia
WIFI gunea

Carrefour
express

ORDUTEGIA
Astelehenerik ostiralera arte
9:00-14:30 / 17:00-20:30
Larunbatan
9:00-14:30

Pago kalea, 5
48170 ZAMUDIO

TURREGOITI
JATETXEA

Laurola etorbidea, 27
48180 Lolu-Bizkaia
T-Faxa: 94 453 24 40
restauranteturregoitia.com

elekma

URRATZEN BAT DUTEN ETXETREKINA ELEKTRIKO BERRAK
TELEBISTAK ETA ETXETREKINA ELEKTRIKO TUKAK

Lehenengo mailak • Prezioak onerak
BOSCH, SIEMENS, BALAY

Teorien etorbidea, 25-3.N. 48180 Lolu
T: 944 339 232
www.elekma.es

le-apaindegia

M^a Antonia Llodio

Txorierik etorbidea, 6
Tel.: 94 452 02 70

48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

Meabe, Mikel Zarate sariaren irabazle



Elkar argitaletxeak jakinarazi duenez, Miren Agur Meabe idazle lekeitiarrak idatzitako *Itsasoaren atea* nobelak irabazi du 2020ko Mikel Zarate haur-literatura saria. Horrela erabaki du Leire Bilbaok, Julen Gabiriak eta Xabier Mendigurenek osatutako epaimahaiak. Meabek 3.000 euroko saria jasoko du eta liburua Elkarrek emango du argitara.

Meabek *Itsasoaren atea* eleberrian kontatzen duen istorioak XIX. mendera eramango du irakurlea, Atlantikoan dagoen ile Cormoran edo Ubarroien irla asmatu batera, eta hor hainbat abentura

izango dira: amodio-debekuak, pasadizo sekretuak, ihes egindako espetxeratuak, gorrotoak, misterioak... "Kontakizunaren hari guztiak bikain josteko abilezia azpimarratu du epaimahaiak, eta hizkuntza joria, dotorea eta adierazkorra", adierazi du Elkar argitaletxeak.

Mikel Zarate haur-literatura saria Lezamako Udalak eta Elkar argitaletxeak sortu zuten, euskal kulturaren sortzaile eta bul-tzatzaile handia izan zen Mikel Zarateren omenez. Aurten lehiaketaren hamaikagarren edizioa izan da eta 22 lan aurkeztu dira.

Konponketak Larrabetzuko futbol-zelaian

Futbol-zelaia 2014an berritu zen, baina, Larrabetzuko Udalak jakinarazi duen moduan, iaz arazoak antzeman zituzten soropil artifizialean. Arazoek luraren egonkortasunari eragiten zioten eta, ondorioz, han jokatzearriskutsua zen. Udalak harremanetan ipini zen berritze-lanak egin zituen enpresarekin eta horrek aitortu zuen fabrikazio-arazoa egon zela eta arazoak beste futbol-zelai batzuetan ere izan zirela. Udalak eta enpresak adostu dutenez, bigarrenak futbol-zelaia osorik berritu du eta kalitate handiagoko beste soropil bat ipini du. Gainera, orain dela sei urte ordaindutakoaren aldean, prezioa % 60 merkeago utzi dio udalari. Horrek 51.000 euro ipini ditu lanetan eta soropil berriak 11 urteko bermea izango du.

Euskotreneko gaueko zerbitzua zapatueta

Zapatuetan, tren bi ateratzen dira Kukullagako geltokitik Lezamara: bata, 00:08an, eta bestea, 02:08an. Bestalde, Lezamako geltokitik tren bakarra irteten da 00:51ean. Informazio gehiagorako: 944 333 333 telefono-zenbakia, www.euskotren.eus, @euskotren eta Euskotreneko app ofiziala.

ERREKA LONDONDIA ETXEA

Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta, enpresen bazkariak, jeunartzeak, familiari bazkariak

Arteaga, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Tfnoa: 94 452 14 19
Faxa: 94 452 26 29

GORBEIA MERTZERIA

Gorbeia kalea, 7
ZAMUDIO
94 655 90 06

Hortz-klinika IDOIA ZUBIETA

Osasun-zentroa & Hortz-estetika
HORTZ-INPLANTEAK - ESTETIKA-ORTODONTZIA

Aireliza doktorea, 11. - 1. ezk.
48011 BILBAO
T: 944 416 322

Uribe Plaza, 1
48170 ZAMUDIO
T: 944 521 370

yedra floristas

Mikel Zarate, 2 - 48150 Sondika - Bizkaia
Telefona: 94 453 14 57 - yedrainterflora@hotmail.com

Lzpilen
PARAFARMAZIA BELAR-DENDA

Sabino Arana, 3. lorja - 48150 SONDIKA (Bizkaia)
94 655 80 00 - 689 99 88 43 - lzpilen@gmail.com

IRATXO
gozotegia

tarta pertsonalizatuak
brufak
leishak
pastelak
pastak

Mikel Zarate, 2 - 3. lorja - Sondika, 48150 - 94 453 89 19

a: Lezamako
Udala

Lezamako historia bideo-dokumental batean jaso da

Uztailan, *Lezama sei bihotz taupadatan* bideo-dokumentala aurkeztu da jendaurrean. Lan horretan herriko azken 90 urteetako historia eta herri-ondare materiagabea jaso dira, "etxe guztietara ailegatu dadin eta denboraren poderioz galdu ez dadin", azaldu du Jon Ander Aurrekoetxea Lezamako alkateak.

Aurrekoetxearen esanetan, hiru eragile ibili dira egitasmoan: udala bera, bertan ordezkartza duten alderdi politikoak eta Zorritzetan euskara elkarteak. Lana egiteko ardura Labayru Fundazioari eman zioten, eta horrek testigantzak eta informazioa bildu ditu. Besteak beste, arlo hauek jaso dira bideo-dokumentalean: historiari buruzko sarrera orokorra, gizartea eta geografia, nekazaritzako lanei lotutako bizimodu tradizionalak, txakolinaren mundua, emakumeen lan espezializatuak, 36ko gerra eta gerraostea, Athletic, pilota eta Mikel Zarate. Lana egiteko, iturri originalak eta dokumentalak eta bibliografia espezifikoak ikertu dira, eta informatzaileen testigantza eta argazki zaharrak batu dira.

Lana abenduan amaitu zen eta jendaurrean 2020ko udaberrian aurkezte-

koa zen; hala ere, COVID-19ak sortutako osasun-alarmaren eraginez, aurkezpena uztailera atzeratu behar izan da. Lana sei atalek osatzen dute eta euskaraz zein gaztelaniaz ekoiztu dira. *Lezama sei bihotz taupadatan* bideo-dokumentala udalaren webgunean egongo da ikusgai.

ZAMUDIO
Loteria Nazionalea

Leizaola L. plaza, 7
Tel.: 94 452 09 59
Faxa: 94 656 69 95
josuastorkiza@gmail.com

RUBÉN
ERLOJU-DENDA BITXITEGIA

Lehendakari Leizaola plaza, 5
48170 Zamudio
94 452 14 49

Loiuk behin-beh sektoreko etxebi

a: www.josuandoni.eus

Josu Andoni Begoña Loiuko alkateak webgunean jakinarazi duenez, azken udalbatzan aho batez onartu zuten Loiuko Etxebizitza Plan Partzial berria. Udalak Ariztondo-Txiline sektorean bizitegi-gune bat egiteko asmoa du, eta planak gune horretako hirigintza-jarduketak bideratuko ditu. "Urrats sendoa da, etxebizitza berriak eta batez ere gazteentzako babeseko etxebizitzak eraikitzeak".

Begoña webgunean azalduta-koaren arabera, azken 20 urteetan ezin da Loiun etxebizitzarik altxatu, eta etxebizitza-plana behin behinean onartu ahal izateko, hainbat azterketa eta aldaketa egin behar izan dira. "Oztupo asko izan ditugu. Garrantzitsuenetarikoa bat aireportu-eremuari lotuta egon da, baina bete beharreko foru-jarraibideei lotutakoak ere izan dira". Etxebizitza Plan Partziala Bizkaiko Foru Aldundira bidali da instituzioaren oniritzia jasotzeko eta behin betiko onartzeko. "Udalerrian etxebizitzak izateko eta herriko gazteei emantzipatzen laguntzeko lan egiten ari gara". Behin plana onartu eta gero, etxebizitzak eskuratzeko zerrendan izena emateko epea zabalduko da.

hotela jatetxea aretxarte

Teknologi Parkea - Eraikuntza, 200
48170 ZAMUDIO - (BIZKAIA)
Telefonoa: 94 403 69 00
Faxa: 94 403 69 01
e-mail: hotel@aretxarte.com
e-mail: reservas@aretxarte.com
www.aretxarte.com

inean onartu du Ariztondo-Txiline zitza-plana



Plan Partziala Zabaloetxe auzoaren luzapen naturala izango da eta, Begoñaren esanetan, "Loiu indartu egingo du, auzo sendo bat izango du emaitza eta, bizitegi-gune berri bat ahalbidetzeaz gainera, herriko merkataritza berpiztuko du". Gainera, udalak udalerrira jasangarritasun-irizpideen arabera eta paisaiarekin bat

eginda haztea nahi du, eta plana "horren isla da". Alkateak adierazi duen moduan, plana egikaritze-unitate biren bitartez gauzatuko da hainbat fasetan, eta, besteak beste, berdeguneak, pasealekuak eta bidegorriak atonduko dira inguruan. Merkataritza- eta zerbitzu-gunea ere kokatu

Lezamako Mugetatik lasterketa bertan behera

Gizarte-sareen bidez jakinarazi dutenez, Lezamako Mugetatik mendi-lasterketaren antolatzaileek aurtengo edizioa bertan behera uzteko erabakia hartu dute. Hasiera batean, baldintza bereziak egonda ere, mendi-lasterketa egitea pentsatu zuten, "baina antolatze-lanetan aurrera egin dugun heinean jabetu gara gero eta zailtasun handiagoak ditugula ekitaldia proposatutako kalitatearekin eta bermeekin garatzeko".

Azaldutakoaren arabera, lasterketak bizirik jarraitzen du, hala ere, "aurten atsedean hartuko du ahal bezain laster bere energia guztiarekin itzultzeko".





RADIO TAXI FEMADE
Zure taxi, Teorierikoa
Zamudio - Derio - Sondika - Lezama - Larrabetzu - Loiu
24h **94 480 09 09**
ERRESERBAK:
www.taxisaeropuertobilbao.com

DESKARGATU APP-A



TAXI FEMADE



- Plater konbinatuak
- Ogitarlekoak
- Kaxolak

BIZKARGI KAFETEGIA
Euskal Herria Kalea
48160 - Derio (Bizkaia)
94 454 16 55

ArtileArtean
Mungialde, 4 - DERIO
946 240 343 / 665 702 751
www.artileartean.com



ASTIKENEMOTOR
www.astikenemotor.com
DERIO - 946 451 781



PATXI KOOP
EUSKAL KOOPERATIBA ELKARTEA
Nabarra pabilgona - Oteiza 4, 48170, Zarautz (Bizkaia) - Tel: 944 523 587 - info@patxi.coop - www.patxi.coop



270 gaztek orientazio-zerbitzua jaso zuten konfinamenduan

EGAZ Txorierriren bitartez eta Gaztedi programaren baitan, Txorierriko Udalek telefono bidezko orientazio-zerbitzua martxan ipini zuten konfinamenduan, 18 urtetik 30 urtera bitarteko gazteei prestakuntza- eta lan-baliabideei buruzko informazioa ematen jarraitzeko. Orotara 270 gazte jo zuten zerbitzura martxoaren 14tik ekainaren 16ra bitartean.

Bestalde, sustatzaileen esanetan, zerbitzua baliagarria izan da Txorierriko gazteen lan-egoera eguneratzeko eta jakiteko zenbat ABEEE batean (aldi baterako enplegu-erregulazio espediente) egon diren, zenbat telelanean ibili diren eta zenbat langabezian gelditu diren. Batutako datuen arabera, zerbitzuan parte hartu zuten gazte gehienek lanean jarraitu zuten alarma-egoeran: % 35ek lantokira joaten jarraitu zuten; eta % 16,30 telelanean hasi ziren. Gazteen % 9,26 ABEEE batean izan ziren. Halaber, telefono bidezko elkarrizketek esker, gazteen gogo-aldarteak ezagutzeko aukera egon da: % 94k ondo egon direla adierazi dute; % 3,33k, hala moduz; % 2,22k, oso ondo; eta % 0,37k, gaizki.

Loiuk oparitxoa egin die 85 urteko herritarrei

Pandemia bereziki nagusiekin grinatu da, eta, osasun-ondorioz gainera, itxialdia eta deskonfinamendua gogorak izan dira haientzat. Hori dela eta, San Pedro eta Santa Luzia jaien harira, Loiuko Udalak oparitxoa egin die 85 urteko herritarrei. Emakumeek kontserbatutako loreak jaso dituzte; eta gizonek, Loiuko haritzen kimuak.

EAJ, Txorierrin ere garaile; EH Bildu, bigarrena

COVID-19aren eraginez, ezohiko hauteskundeak izan ziren uztailaren 12koak, zeinetan maskara eta gel hidroalkoholikoa nagusi izan baitziren. Emaitei dagokionez, EAJk 31 eserleku lortu zituen Eusko Legebiltzarrean, 2016an baino hiru eserleku gehiago. EH Bilduk, bestalde, 21 eserleku eskuratu zituen, hiru gehiago. Gainerako alderdiek emaitza hauek izan zituzten: PSEk, 10 eserleku (bat gehiago); Elkarrekin Podemosek, sei eserleku (bost gutxiago); PP+Cs-ek, sei eserleku (hiru gutxiago); eta VOXek, eserleku bat. Txorierrin ere EAJk eskuratu ditu boto gehien: 5.128 boto (5.602 boto, 2016an); eta EH Bildu bigarren alderdia izan da: 2.791 boto (2.527, 2016an).


Hurrengo lerroetan, Eusko Legebiltzarrean eserlekuak lortu dituzten alderdiek Txorierrin izandako emaitzak batu dira. EAJk 1.272 boto izan ditu Derion (1.448, 2016an); 392 boto Larrabetzun (458, 2016an); 776 boto Lezaman (745, 2016an); 753 boto Loiun (803, 2016an); 1.131 boto Sondikan (1.286, 2016an); eta 804 boto Zamudion (862, 2016an). EH Bilduk 689 boto eskuratu ditu Derion (503, 2016an); 619 boto Larrabetzun (598, 2016an); 339

boto Lezaman (376, 2016an); 179 boto Loiun (162, 2016an); 489 boto Sondikan (413, 2016an); eta 476 boto Zamudion (475, 2016an).

Beste aldetik, PSEk 436 boto lortu ditu Derion (440, aurreko hauteskundeetan); 14 boto Larrabetzun (12); 51 boto Lezaman (43); 55 boto, Loiun (51); 186 boto Sondikan (161); eta 110 boto Zamudion (96). Elkarrekin Podemosek 213 boto eskuratu ditu Derion (510, aurreko hauteskundeetan); 39 boto Larrabetzun (75); 55 boto Lezaman (121); 46 boto Loiun (113); 144 boto Sondikan (287); eta 60 boto Zamudion (188).

PP+Cs-ek 109 boto izan dituzte Derion (235, 2016an); 14 boto Larrabetzun (26); 14 boto Lezaman (49); 61 boto Loiun (148); 107 boto Sondikan (215); eta 29 boto Zamudion (67). Azkenik, 45 lagunek eman diote botoa VOXi Derion; zazpi lagunek Larrabetzun; sei lagunek Lezaman; 26 lagunek Loiun; 17 lagunek Sondikan; eta zortzi lagunek Zamudion.

Abstentzioa 44,33 izan da Derion (% 24,09, 2016an); % 28,28 Larrabetzun (% 24,09); % 32,23 Lezaman (% 26,74); % 34,94 Loiun (% 27,96); % 38,87 Sondikan (% 30,43); eta % 38,08 Zamudion (31,91).





a: Laura Peña,
iazko irabazlea

Oporretako argazkiek badute saria

Altzora Sondikako euskara elkarteak argazki-lehiaketa antolatu du hamargarren aldiz. Gaia "Oporrak" da eta parte-hartzaile bakoitzak gehienez argazki bi aurkeztu ahaliko ditu. Irudiak irailaren 20ra arte bidali ahaliko dira altzora.ee@gmail.com helbide elektronikora, edo watsappez 635 753 595 telefono zenbakira.

Argazkiek jpg formatua izan behar dute eta parte-hartzaileak datu hauek adierazi behar ditu: izen-abizenak, telefono zenbakia, lekua, data, helbide elektronikoa eta, nahi izanez gero, argazkiari lotutako izenburua edo esaldi txikia. Irabazleak sari bi izango ditu aukeran: lagun birentzako bazkaria edo nekazaritza-turismoko establezimendu batean gaua ematea.



a: Gema Blanco



HARATEGIA
ALBERTO
Arbolantxa, 4
T: 94 452 08 25
48170 ZAMUDIO



Leizaola plaza, 7 - behea (ZAMUDIO)
94 655 93 69

GAMINIZ
JATETXEA



Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com
Ibaizabal 212, Parke Teknologikoa
48170 Zamudio - Bizkaia
GPS: 2°51'41" N 43°17'37" W
www.gaminiz.com

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA
Santi Mami auzoa, 1
Tel.: 94 454 10 06
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)



SANTI MAMI
ALBAILARITZA
Nerea Pedrosa Cols. 517
COOP. GANADERA ZAMUDIO DERIO
Tel.: 94 454 13 77 - 689 04 31 15
Faxa: 94 454 12 15

t: Itxaso Marina Ondarrosa

Aurreko urteen aldean gutxi diren arren, erromesak ikusten hasi dira berriro ere Txorierrin: tipi-tapa Done Jakue Bideari jarraituta. Gure bailara Santiagorantz igarobidea da; baita atseden hartzeko lekua ere, pelegrintzako aterpe bi baitaude: bata, Larrabetzun, eta bestea, Lezaman. Aterpeak doakoak dira eta Done Jakue Bidearen Bizkaiko Borondatezko Zaintzaileen Elkartek kudeatzen ditu; hala ere, COVID-19ak sortutako munduko osasun-larrialdia dela eta, elkartek erabaki du Txorierrikoak zein Bizkaiko gainerrako aterpeak ez zabaltzea.

Juanjo Mateu Done Jakue Bidearen Bizkaiko Borondatezko Zaintzaileen Elkartaren presidentea da; eta Jesus Bilbao, idazkaria. Azaldu digutenez, aurtan Bizkaiko aterpeak ez zabaltzeko erabakia penaz hartu dute, baina, euren ustez, sen ona eta osasuna gailendu behar dira. "Gaur egungo egoera ikusita, pentsaezina da aterpetxeak irekitzea: dena berrantolatu behar da eta hori epe luzera egin behar da; ezin da inprobisatu. Gainera, errome-

"Osasun-arloan segurtasuna egon arte, hau da, txertoa izan arte, ez ditugu aterpeak zabalduko"

"Datorren urtean ere hartu beharko dira neurriak: ondo legoke udalek leku handiago bat utzi ahal izatea"

Bidean aterperik ez

sak artatzen ditugunok nagusiak gara, 70 urte ingurukoak, eta, hortaz, arrisku-taldekoak: ezin ditugu boluntarioak arriskatu. Osasun-arloan segurtasuna egon arte, hau da, txertoa izan arte, ez ditugu aterpeak zabalduko".

Bizkaiko aterpetxeak urtean 24.000 erromes inguru hartzen dituzte. "Zehatz-mehatz, Lezamakoak ekainaren 1etik irailaren 30era arte ireki ohi da, eta Larrabetzukoak, Aste Santutik urriaren erdialdera

arte". Lehenak 2.700 pelegin gutxi gorabehera hartu zituen iaz, eta bigarrenak, 3.300. Aterpe biak herri bakoitzeko udalak lagatako lokalak dira eta 20na lagunentzako lekua dute. "Gure aurreikuspenen arabera, osasun- eta segurtasun-neurri guztiak bete ondoren, aterpe bakoitzean bakarrik bost lagunentzako tokia egongo litzateke, eta horrela ezin da ireki. Ziur asko, datorren urtean ere hartu beharko dira neurriak, eta konponbideak bilatu.



Enaitz
TABERNA

Ogitartekoak 94 455 42 15
Anoak Garaioltza, 74
Plater konbinatuak 48196 Lezama

TABERNA
GAZTE

Eguneko menuak
Ospakizunak

Aretxalde, 141 - 48196 LEZAMA
944554422 - gazteditaberna@gmail.com

LEJARRENE JATETXEA
Garaioltza auzoa, 12 • LEZAMA • T: 94 455 65 46

Horren harira, ondo legoke udalek leku handiago bat utzi ahal izatea". Halaber, taldekideak hartu beharreko garbitasun-eta desinfekzio-neurriez kezkatuta dabil-tza. "Gai hori ere sakon aztertu behar da, ezin baita arinkeriaz hartu. Lana handituz gero, baliteke aterpe bakoitzean bolunta-rio bi ipini behar izatea: bata, erromesak artatzeko; eta bestea, desinfekzio-lanez arduratzeko".

Altruistak

Done Jakue Bidearen Bizkaiko Boron-dateko Zaintzaileen Elkartek modu al-truistan kudeatzen ditu aterpeak. "Pelegri-nei ez diegu ezer kobratzen aterpetxeetan ostatua hartzeagatik. Dohaina eskatzen dugu eta batzuek ematen dute, eta bes-te batzuek, ez. Batzen den dirua aterpea hobetzeko erabiltzen da". Bestalde, di-rua sobera badago, udalei ematen diete beharizana duten herritarren artean ba-natu dezaten. "Erromesak doako ostatua hartzeko aukera barik geldituko dira, eta, egia esan, kostatu zaigu ez zabaltzeko era-bakia hartzea, baina ezin ditugu bolunta-rioak estutasunean ipini. Lehenengo eta

*"Kostatu zaigu ez
zabaltzeko erabakia
hartzea, baina ezin
ditugu boluntarioak
estutasunean ipini"*

behin, osasun-arazoa konpondu behar da eta horren ostean ikusiko dugu nola ireki".

Doako aterpeak itxita, erromesek os-tatu pribatuetara jotzea dute. Derioko Seminarioan, esaterako, Mañarikua ikas-le-egoitza dago, baina jakinarazi diguten moduan, COVID-19aren ondorioz erabaki dute aurten bakarrik egonaldi luzeko erre-serbak onartzea. Beste aukera bat lande-txeak dira. Euren kabuz erreserbatzen du-ten partikularrez gainera, Lezamako Matsa landetxeak, adibidez, agentzien bidez har-tu ohi dituzte atzerriko erromesak. Azaldu digutenez, "normaltasun berria" hasi de-netik mugimendu gutxi dago, peleginak Txorierrin azaltzen hasi badira ere.

Bidea

Txorierrri Done Jakue Bidearen iparraldeko adarrean dago, Santia-gorako erromesbide zaharreneta-rikoan hain zuzen ere. Guztira 765 kilometroko luzera du eta, Hendaia-tik hasita, iberiar penintsularen ipa-rraldea zeharkatzen du itsasertzetik. Lehenengo urteetan hegoaldeko bi-dearen alternatiba bihurtu zen, Na-farroaren zati bat musulmanen men-pe zegoen eta. Done Jakue Bideak garrantzi handia izan zuen; esate ba-terako, bide horretan egoteak ekarri zuen Larrabetzu sortu izana. Done Jakue Bidea Larrabetzutik, hain zu-zen, sartzan da Txorierrin. Peleginak Morgatik Goikoelexalde auzora hel-tzen dira, eta handik Larrabetzura doaz. Hurrengo geldialdia Lezaman egiten dute, eta geroago Zamudion. Pinoa industrialdeko bidetik Bilbora-ko bidea hartzen dute.

TALDEA **GURENA**
ASISTENTZI ETA EGOITZA-ZERBITZUAK

ZURE NEURRIRA



**BABESPEKO
APARTAMENTUAK**
600 euro
asistentzia sanitarioa (24 ordu)

**EGONALDIAK
EGOITZEAN**
egunean
gauean
asteburuetan

Unbe txiki bidea 9
LOIU 48180
(Urdaneta ikastetxearen aurrean)

944 530 049
www.gurena.com

“Burua 24 orduan zazpi egunean dot beharrean”

t: Itxaso Marina / a: A.L.

AINHOA LEKERIKA | artista

“Lana itxialdiaren lehen egunetan hasi neban eta gogorra izan zan, personek lan egiteko joera dot eta. Hortaz, batez be aurretik egindakoa aztertzen ibili nintzan, zorrotz. Baina deskonfinamentua heldu zanean konturatu nintzan zerbait fisikoa egiteko beharra nebala, nahiz eta artean zer egin argi ez neban”, aitatu deusku. Epaimahaikideei esperientzia fisiko hori izateko proposamena egin eutsen eta, baietz erantzuteaz gainera, hareek edozein lekutara hurbiltzeko prest azaldu ziran. “Hasiera baten, instalazinoa Bilboko kaleetan egitea pentsau neban, halandaze be, aukera baztertu neban akabuan: edonork hartu leike elementuren bat, eta eraman edo apurtu. Instalazinoa Politeknikako kiroldegian ipintzea proposidu eusten aitzak eta osabak, eta zuzendariagaz egin neban berba. Egia esan, oso eskuzabalak izan dira eta erraztasun handiak emon deustez”.

Afektuak nagusi dira lezamarraren lanetan eta Politeknikan be izan dabe isla. “Lekuaren konnotazioak eta hango elementuak –saskibaloiko saskiak, futboleko ateak, lurreko marrak...– kontuan hartuta, afektuak ikusteko dodan modua islatu neban bertan, eta futbolean ordez, nire lanagaz zerikusia daukan zerbaitean jolastea proposatu, ea zer gertatzen zan”. Ateak eta saskiek, beraz, ohiko funtzinoa galdu eben eta guneagaz batera esperimentazio-bide bihurtu ziran. “Epaimahaikideek esan eusten oso gauza txikiakaz mugimendua sortu nebala eta espazioaren trataerea be oso handia zala. Euren

Lezamako gazteak modu ezin hobean amaitu barri dau Arteko Gradua; izan be, aurkeztutako gradu amaierako lanari hamar bat eta ohorezko matrikula ipini deusie. Leketik instalazinoa bat atondu eban Politeknika Ikastegia Txorierrin eta bertan afektuei lotutako esperimentazio-gunea sortu eban.



“Itxialdiak ekarritako hainbeste frustrazinoren ondoren, behar nebanari entzuteko gauza izateak notak baino askoz gehiago poztu nau”



“Fakultadean ez dot topatu espero nebana: askoz hobea izan da eta ez naz damu”

gradua hasi bezain laster. “Ez dot topatu espero nebana: askoz hobea izan da eta ez naz damu”.

Datorren ikasturtea lasaitasunez hartzeko asmoa dau. “Ingeles titulua ateratu gura dot, eta lana topau. Era berean, kanpoan master bat egitea gustatuko litxakit, ze hemengo egoera eta lan egiteko erak ezagutzen dodaz, eta testuinguruaren arabera lan egiteko era erabat aldatzen da. Ondo informatuko naz eta nora joan erabagiko dot. Doktoretza be egin gura neuke, eta etorkizunean artistaren lana eta irakaslearen lana buztartu”. Amaitzeko, euskal artearen gainean kontau deusku oso oparoa dala, eta artista askok lanak mundu osoan saltzen dabezala. “Zorte handia izan da hemen ikasi izana”.

berbetan, lanak alerta sentikorra-edo piztu eutsen eta kanpora urten ziranean beste modu baten ikusi eban dana”. Gradu amaierarako lanari ipinitako nota bikainak askoz poztu dau gaztea. “Edozelan be, itxialdiak ekarritako hainbeste frustrazioren ondoren, egoerari buelta emon eta behar nebanari entzuteko gauza izan izanak askoz gehiago poztu nau: gaxa bazan be, ausarta izan naz eta oso ondo ateratu jat”. Epaimahaikideen berbak be oso esanguratsuak izan dira berarentzat. “Epaimahaia nik benetan miresten dodazan artistek, erreferenteak direnak, osatu eben, eta nire lanarekiko izan dabazan gorrespen-berbak entzun izana zein nire ikus-te sentikorrek harritu dauzala ikusi izanak ikaragarria izan da”.

Aitortu dauanez, Arte Ederretako Fakultadean sartzea bihizkadea izan zan. “Matrikulan «Ikus-entzunezkoak» idatzi neban, baina handik 10 minutura, eroroan, ezabatu eta «Arteko Gradua» ipini neban, benetan hori egin gura neban eta. Bizitzan, nire alde sentikorrari garrantzia emon deusat beti, baina batxilergoan, esaterako, letrak aukeratu nebazan eta unibertsidadearen aurretik ez neban arte-arloan inongo heziketarik jaso. Horregaitik, Arte Ederretako Fakultadean has-tearen beldur nintzan, ez nekielako ezer egiten. Dana dala, intuizioak emaitza ona izan dau eta ez naz damu”.

Tabakaleran esperientzia

Fakultadean hiru espezialitate ikaste-ko aukerea dago: diseinua eta sorkuntza, zaharberritzea eta artea. Hasieran diseinua aukeratu arren, Lekerikak arteagaz saiatzea erabagi eban bigarren mailaren ondoren. “Uda hatan, Donostiako Tabakaleran izan nintzan beka bat eskuratuta. Hilabete eta erdiko egonaldia gozatu neban Jon Mikel Euba eta Itziar Okariz artis-

teakaz eta beste 15 ikasle eta artesteakaz, ikasten eta sortzen, eta konturatu nintzan benetan gustatzen jatana artea zala. Era berean, ohartu nintzan arteagaz diseinua egin ahal dala, baina diseinuan ikasten danagaz artea egitea gaxagoa dala”.

Uste daitekeenaren kontra, Arteko Gradua exigentzia handikoa da. “Jenteak alferrak garela pentsa daike, baina nire esperientzia bestelakoa da: fakultadean 08:30etik 19:00etara emon dot astean zehar, eta burua 24 orduan zazpi egunean dot beharrean”. Ikasketen gainean nebazan itxaropenak hankaz gora ipini ziran



POLITEKNIKA IKASTEGIA
TXORIERRI
S.COOP.
Centro de Educación Secundaria y Formación Profesional
Larabide Heziketa eta Sigueren Hezikuntzarako Ikastetxea

Unitzaga Ibaia Kalea, 1
48160 - DEPIO | Tel.: 94 403 40 60 | info@txorierri.net
Fax: 94 403 40 61 | www.txorierri.net

Eusko Jaurlaritzak diruz-lagundutako ikastetxea

BATXILERGOA

- Zientziak Batxilergoa

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Mekanizazioko Teknikari

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko Goi-mailako Teknikari
- Produktzioa Programatzeko Goi-mailako Teknikari
- Automatizazioa eta Robotika Industriako Goi-mailako Teknikari
- Telekomunikazioa eta Informatikako Sistemako Goi-mailako Teknikari
- Salmenten eta Merkataritza Esparruen Kudeaketako Goi-mailako Teknikari
- Ingurumen Hezikuntza eta Kontrolako Goi-mailako Teknikari

EUSKO JAURLARITZA **GOBIERNO VASCO**

IKASTETXEN GARAPEN ETA ADOSATUTASUNA | DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONOMICO E INFRAESTRUCTURAS

40 urte, milaka txori



A Kategoriako lehenengo saria: 2. maila (Larrabetzu).
Konfinamendu aurretik ateratako argazkia



B Kategoriako
lehenengo saria:
Hodei Reyes

Txorierriko 22. Ipuin Lehiaketaren irabazleak

Mankomunitateak 2019an ipuin lehiaketa abiatu zuen eta 388 ipuin jaso ziren guztira. Irabazle guztiek jaso dituzte euren opariak, baina zoritxarrez, COVID-19aren eraginez, ezin izan dugu urteroko sari banaketa antolatu. Hemen daukazue jaso ditugun argazkietako batzuk. Zorionak guztioi!!!



A Kategoriako akzesita:
Ane Bilbao (Lezama)



A Kategoriako akzesita:
Danel Bustinza
(Lezama)



A Kategoriako akzesita:
Izaro Sainz (Zamudio)

A Kategoriako
akzesita:
Ayoub Ouissaaden
(Zamudio)



A Kategoriako akzesita:
Uxue Bonaetxe (Zamudio)


A Kategoriako
akzesita:
Olaia Muñoz
(Zamudio)



A Kategoriako akzesita:
Elaia Larraskitu
(Zamudio)



A Kategoriako
akzesita:
Danel Elizalde
(Zamudio)



B Kategoriako
akzesita:
Alejandro Reche
(Derio)



B Kategoriako
akzesita:
Xenia Gil (Derio)



C Kategoriako
lehenengo saria:
Urdax Zabala
(Larrabetzu)



D Kategoriako lehenengo saria:
Olatz Murillo (Larrabetzu)



B Kategoriako
akzesita:
Laura Vicente
(Derio)



B Kategoriako
akzesita:
Izadi Gaztelu
(Larrabetzu)



B Kategoriako
akzesita:
Ane Garaiurrebaso
(Larrabetzu)



B Kategoriako akzesita:
Maddi Aspuru (Larrabetzu)



B Kategoriako
akzesita:
Asier Bilbao
(Lezama)



B Kategoriako
akzesita:
June Alvarez
de Arcaya
(Lezama)



B Kategoriako
akzesita:
June Rodriguez
(Loiu)



B Kategoriako
akzesita:
Andrea Martinez
(Loiu)



B Kategoriako akzesita:
Eneko Aresti (Sondika)



B Kategoriako akzesita:
Elene Elosegui
(Sondika)



B Kategoriako
akzesita:
Beñat Errekato
(Zamudio)



B Kategoriako
akzesita:
Maddi Solaguren
(Zamudio)



C kategoriako akzesitak:
Xana Alejandre
eta Deñe Rodriguez
(Derio)



E kategoriako
1. saria: Egoitz
Campo
(Larrabetzu)



C Kategoriako
akzesita:
Danel Saenz
(Derio)



C Kategoriako
akzesita:
June Bidaurrezaga
(Larrabetzu)



C Kategoriako
akzesita:
Asier Serrano
(Loiu)



C Kategoriako
akzesita:
Aiden Levit
(Loiu)



C Kategoriako
akzesita:
Garazi Bilbao
(Loiu)



C Kategoriako
akzesita:
Inhar Zubieta
(Sondika)



C Kategoriako
akzesita:
Hodei Cabezón
(Sondika)



C Kategoriako akzesita:
Markel Elozegui
(Sondika)



C Kategoriako akzesita: Haizea Luna (Zamudio)



C Kategoriako
akzesita:
Naia Fernandez
(Zamudio)



D Kategoriako akzesita:
Aitana Landeta
(Zamudio)



D Kategoriako
Institutuko
saridunak

ZELAN?

POSTAZ:

Aikor!lagun fitxa(*) bete eta bidali:
Aresti, 2 behea - 48170 - Zamudio

E-POSTAZ:

aikortxori@aikor.com helbidera

TELEFONOZ:

94 452 34 47
688 86 41 35

AHOZ:

Zure herriko euskara
elkarteko kideren bati esan

(*) Fitxa aldizkarian bertan eta
erakundeetan, liburutegietan,
komertzioetan... utziko ditugun
diptikoetan topatuko duzue.



Egin zaitez Aikor!lagun

Etxe bat, lagun bat



Egin zaitez Aikor!lagun



Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefonoa: _____

e-posta: _____

IBAN+Bankuko zenbakiak: _____

Urteko kuota: _____

Aldizkaria jasotzen duzu? _____

Sinadura _____

30 euro _____ Beste bat _____

Orri hau helbide honetara bidali:

Aikor! Aldizkaria

Aresti kalea 2, behea - 48170 - Zamudio



15/1999 Lege Organikoari jarraituz, hau jakinarazten dizugu: formulario honetan sartzen dituzun datu pertsonalak fitxategi batean gordeko dira. Fitxategiaren erantzulea TOTAN TXORIERRIKO EUSKARA ELKARTEEN FEDERAZIOA da eta datuak kudeatzeko ditu. Kontrakoa esaten ez diguzun bitartean, zure datuak kudeatzeko baimena dugula ulertuko dugu. Dena dela, edozein momentutan datuok eskuratu, baliogabetu eta zuzendu ahaliko dituzu. Horretarako, helbide honetara jo beharko duzu: ARESTI KALEA 2-BEHEA, 48170 ZAMUDIO (Bizkaia).

Rally segurua

Itxialditik atera eta gero, Iberiar Penintsulan egindako lehenengo rallya non eta Txorierrin egin zen uztailaren 11n. Egun horretan, Zamudio Racing eta Real Peña Motorista Vizcaya elkarteek Zamudioko Rallya antolatu zuten zortzigarren aldiz. Sustatzaileek koronabirusa kutsatzeko beldurra gainditu zuten eta segurtasun-protokolo berezi bat martxan jarri eta gero, lasterketa ederra eta segurua antolatu zuten.

t: Gaizka Eguzkitza / a: Josu Uribe

"Dena genuen prest, baina bat-batean koronabirusa agertu zen eta rallya bertan behera uzteko zorian egon ginen", esan digu Egoitz Mozo Zamudio Racing elkarte-kideak. Azken hilabeteotan, Egoitzen hitzak sarritan entzun ditugu tamalez: kultur-sustatzaileei, herriko elkartei, norbanakoei... Zamudioko rallyzaleek, ordea, ez zuten amore eman nahi izan eta hau pentsatu zuten: "Tabernak leporaino badaude eta hondartzak ere irekita badaude, zergatik ez dugu guk aire librean lasterketa bat antolatuko, ba?".

Horretarako, harremanetan jarri ziren Zamudioko Udalarekin, Euskadiko Automobilismo Federazioarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin, segurtasun-protokolo bat garatzeko. "Hasiera-hasieratik, argi genuen neurri bereziak hartu beharko genituela; azken batean, osasuna gure lehentasuna izan da beti. Esate baterako, autoen eta parte-hartzaileen egiaztapen teknikoak Agirre Lehendakaria plazan egin genituen, baina tarte handiak utzi genituen euren artean; eta egiaztapen administratiboak industrialdera eraman genituen –aurreko urteetan Kultur Etxean bertan egiten genituen– eta talde bakoitzari hitzordua eman genion, pilaketak ekiditeko".

Gainera, hainbat lagun behar dira rallya antolatzeko eta aurtan, are gehiago behar izan dituzte. "Normalean 100 pertsonak laguntzen digute, baina aurtan 180 ibili dira lasterketaren tarteetan barreiatuta, argibideak ematen: herriko lagunak, beste eskuderietako kideak... Fabore bat baino gehiago zor ditut (kar, kar). Ez, benetan, rallyak antolatzeko normala da beste taldeei laguntza eskatzea. Andrea eta biok askotan joaten gara beste lasterketetara laguntza ematera".

Zailtasunak zailtasun, Mozo poz-pozik agertu da. "Antolatzaileok lan ikaragarria





egin dugu azken hilabeteotan, baina, emaitza ikusita, esan beharra dago merezi izan duela: ez da egon kutsatzerik, tabernariekin hitz egin dugu eta haiek ere pozarren dabilta, rallyari esker bezero piloa izan dutelako; hotelak ere bai... Esan nahi dut ez dela egon arazorik eta, gainera, rallyak dirua utzi duela herrian".

Jendea, zintzo

Zamudio Racingeko lagunak azpimarratu du rallyan batutako gidariak goi-

mailakoak izan direla, "azken urteotako onenak", hain zuzen ere. "Itxialditik atera bezain pronto, Kanarietan antolatu zuten lasterketa bat. Baina oso urrun dago eta penintsulan gurea izan da lehenengoa. Hori dela eta, gidariak eta haiek ekartzen dituzten rallyzaleak –Asturiasetik, Madriletik...– oso gogotsu etorri dira Zamudio-ra. Pentsa ezazu futbolzaleek astero-astero dutela partidaren bat ikusteko aukera, baina rallyzaleok... Eta jende zintzoa da, rallyzale amorratuak. Aipatu nahi dut eu-

rek adierazitako jarrera, benetan txalotzekoa: laguntzeko prest agertu dira, maskara jantzi dute, tarteak utzi dituzte euren artean... Lasterketa egunean, tarte batean hainbat zaletu pilatu ziren, baina gizarte sareen bidez horren berri eman genuen eta beste gehiagorik esan barik, haiek hartu zuten barreiatzeko erabakia. Eredugarria".

Koronabirusa alde batera utzita, aurtengo rallya berezia izan da, antolatzaileek Borja Triguerosi omenaldia egin diotelako. "Zornotzarra izan arren, oso harreman estua genuen berarekin: lankidea, laguna, gidaria, laguntzailea... Gazteegia zela urtarrilean hil zen eta bera gogoan eduki nahi izan dugu: tarte bati bere izena jarri diogu eta familiari ikurra eta lore-sorta eman genizkion. Borjaren aitak bat egin zuen omenaldiarekin eta Antxon Jaruregiren kopilotu hartu zuen parte rallyan, Borjak egingo zukeen moduan. Polita eta hunkigarria izan zen", azaldu digu Mozok.

Triala bertan behera utzi dute

Zamudio Rallya arrakastatsua izan da, baina zoritxarrez, Zamudio Racingak bertan behera utzi behar izan zuen Zamudio Rallya. Saioa uztailaren 18rako antolatu zuten, baina oso gidari gutxi eman zuten izena eta, ondorioz, txapelketa ez egitea erabaki zuten. "Ez dakit zer gertatu den. Agian jendea oporretan dabil; edo kutsatzeko beldur dira. Normalean 60 gidarik ematen dute izena, baina aurten bakarrik 10 apuntatu dira. Horrela ezin da txapelketarik antolatu. Pena ematen digu, baina ez dira garai onak; hobeak etorriko dira", esan digu Egoitzek.



Ares eta Vazquez, txapeldunak

Kirol-emaitzei dagokionez, Ivan Ares eta bere kopilotu David Vazquezek irabazi zuten Zamudio Rallya. Galiziarak faboritoak ziren, Ares Estatuko txapeldunordea delako, eta bikotekideak aurreikuspenak berretsi zituen: lasterketaren tarte guztiak irabazi zituzten. "Arazorik izan ezean, argi genuen rallya irabaziko zutela. Txus Jaio eta Iñigo Olabe gidari euskaldunek matxurak izan zituzten eta ezin izan zuten ezta rallyaren erdia ere egin. Pena izan zen, niretzat biak idoloak direlako", esan digu Egoitz Mozok.

Bigarren postuan, Ivan Muñoz eta Ibai Ajuriagoikoa heldu ziren; eta hirugarrenean, Joseba Iraola eta Xabier Lujua. Gainerako mailetan hauek izan ziren txapeldunak: Unai García-Eguzkiñe Enríquez, Txaber Aginaga-Eneko Artaza, Daniel Moya-Aarón Rocillo, Gorka Antxustegi-Xabat Urresti, Ioritz Odiaga-Arkaitz Kobeaga, Aratz Zarakondegi-Aitor

Kortazar eta Jon Zubeldia-Zuhaitz Ganzarain.

Erregularitasunean, Asier Santamaria eta Roberto Renteria izan ziren irabazleak; Marcos Fernandezek eta Adolfo Gonzalez-Almuiñak bigarren postua lortu zuten; eta Gorka Gorroñok eta Mikel Oleagak, hirugarrena. Txema Foronda eta Pilar Rodas onenak izan ziren trofeo kategorian; eta Christian de la Rivak eta Borja Lopez Barrañonek ere lortu zuten garaipena tresnarik gabeko kategorian.

Aurten txorieritar bakar batek hartu du parte lasterketan, Andoni Mintegi lezamarra. Mintegi Yeray Goiriren kopilotua izan zen eta bikoteak lehendabiziko aldiz hartu du parte rally batean. "Euren autoak, Peugeot 106 batek, arazoak izan zituen lasterketa osoan zehar, baina azkenean rallya amaitzea lortu zuten. Ondo pasatzera etorri ziren, baita rallya amaitzera ere; beraz, pozik joango ziren etxera", aipatu du Mozok.

"Oso pozik gabiltza: ez da egon arazorik, eta, gainera, rallyak dirua utzi du herrian"

"Jendeak izan duen jarrera, txalotzekoa: laguntzeko prest, maskara jantzi dute..."



Libre dagoen txoriak fazil egiten du barre

txori tokia



TXORIERRIKO UDAL
EUSKALTEGIA



2020-21 IKASTURTEA

MAILA GUZTIAK: HABEren A1-A2-B1-B2-C1-C2

- Astean 10, 7,5, 6, 5 eta 4 orduko ikastaroak
- Astean 4, 3 edo 2 egunetan
- Ikastaro trinkoak ostiraletan
- AUTOIKASKUNTZA
- ON LINE ARITZEKO AUKERA

MATRIKULA ZABALIK: Irailaren 1etik 23ra

DIRULAGUNTZAK:

- % 50 edo % 75 eskuragai.
- Ikasle guztientzat

BULEGO ORDUAK: 8:30-14:00 / 16:00-18:00

t: Gaizka Eguzkitza / a: Josu Uribe

Barrio Zamudioko Rallyan. Zelan aurtentzen?

Txarto, lasterketea bukatu ezin neba-lako. Dardara arraro bat nabaritu genduan eta pieza bat askatu zan. Dana konpontzen saiatu ginan, baina azkenean itxi behar izan genduan.

Zer deritxazu Zamudioko Rallyari?

Ibilpidea polita da. Eta txalotzekoa da antolatzaileek urtero egiten dabenean beharra. Are gehiago aurtentzen, koronabirusa dala eta: jente pila zegoan parte-hartzaileei eta publikoari argibideak emoten; protokoloak jarri dabez martxan, kutsatzeko arriskua ekiditeko... Aurreko urteetan ez da gidari askorik egon, baina aurtentzen nahikotxo batu ginan bertan. Eta hori Zamudio Racingeko lagunek primeran kudeatu dabe.

Zure ibilpideari buruz berba egin daigun. Zelan hasi zinan rallyetan?

Zaletasuna umetan piztu jatan. Garai hatan, bizikletaz joaten nintzan lasterketak ikustera. Beranduago, motorrez ibiltzen nintzan eta lanean hasi nintzanean, eta dirua aurreztu nebanean, autoa erosi neban. Apurka-apurka murgildu nintzan rallyetan.

Gatxa da rallyetan aurrera egitea, ezta?

Dirua badozu, erraza da pilotua izatea, baina zaila-zaila da hortik bizi izatea, ia ezinezkoa. Gidari profesional batek zenbait laguntzaile behar dauz: entrenatzailea, mekanikaria, laguntzailea... Eta horretarako dirua behar da. Nik lagunei esker hartzen dot parte lasterketetan, eta nire moduan ibiltzen dira Euskal Herriko gidarien % 95. Esate baterako, lagun batek musu-truk konpontzen deust autoa.


Carlos Sainz junior team taldean sartu zinen 1998an. Zelan esperientzia?

Bikaina. Alkarrizketa egiten deustenean, eskerrak emoten deustodaz taldeari.

“Dirua badozu, erraza da pilotua izatea”

TXUS JAIO | Rally gidaria

Uztailan Zamudio Racing alkarteak Zamudioko Rallya antolatu eban eta Txus Jaio bere parte-hartzaileetako bat izan zan. Markinarra Euskal Herriko rally piloturik aipagarriena da, garai batean Munduko Txapelketako bost saiotan aritu zalako; gaur egun, ordea, zaletu mailako lasterketetan sartzen da lehian.



ELORRIETA
INSTALACIONES

ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA

Uribe kalea, 12 behea Derio 48160
94 454 03 86

639 57 98 48 - 639 58 25 47

KAFETEGIA

IAZI
JATETKEA

Jata kalea, 2 - DERIO
Tel.: 944 54 29 56

LEIRE BEGOÑA

ULE-APAINDEGIA

MUNGIALDE ETORRIBIDEA, 20
48160 DERIO
94 454 26 32

Jarrai izaguzi Facebook-en



Erreferentea

Txus Jaio Arrizabalaga (Markina-Xemein, 1975) erreferentea da euskal rallyetan: batetik, bi aldiz irabazi dau alako Espainiako Lur Azpiko Rally Txapelketa (2002an eta 2003an); eta bestetik, Munduko Txapelketako saio batzuetan parte hartu ebalako 1999tik 2003era bitartean: Katalunia, Portugal eta Britainia Handiko RAC rallya, hain zuzen be. Jaioz gainera, ez da inoz gidari euskaldunik egon Munduko Txapelketan.

Eurengatik izan ez balitz, ez neukeen goimailako autoetan eta lasterketetan ibiltzeko aukerarik eukiko. 2003an, Espainiako Txapelketa irabazi neban eta horretarako bigarren eskuko autoa erosi eusten –aurreko urtean Munduko Txapelketan parte hartu ebana–, eta horren truke 500.000 euro ordaindu ebezan. Atera kontuak!

Zelangoa da Carlos Sainz?

Itzela da, profesionala, goitik behera. Eta noski, ikutu berezi bat dau, oso gitxi daben ikutu hori: horrerik esker, bi aldiz irabazi dau Munduko Txapelketa, beste bi aldiz izan da txapeldunordea, Dakar Rallya be irabazita dauka... Telebistan, serioa dirudi, baina gehiago ezagutzen dozunean, oso jatorra da.

Orain dala 20 urte Munduko Txapelketako lasterketa batzuetan arituzin. Gogorapen politak, ezta?

Bai, bost lasterketatan hartu neban parte: Portugal, Katalunia, Ingalaterra... Oso esperientzia polita izan zan. Gidari guztiok euki beharko geunke Munduko Txapelketako lasterketaren batean parte hartzeko aukerea. Batez be bertako gidariak konparatuta, zer txarrak garan ikusteko (kar, kar). Esan gura dot goi-mailako gidariak bereziak direla. Euskal Herrian fin

"Lagunei esker hartzen dot parte lasterketetan, eta nire moduan ibiltzen dira Euskal Herriko gidarien % 95"

ibili ahal zara eta gidari aipagarria izan; Estatutan be bai; baina oso gitxi dira Munduko Txapelketan lasterketak irabazteko gauza diran gidariak.

Zer falta izan jatzun goi-mailan jarraitzeko?

Urte batzuk emon nebazan Carlos Sainzen taldean; ostean, Ford taldean jarraitu neban hurrengo hiru urtean, baina laugarrenean ugazabak aldatu ziran eta talde barik gelditu nintzan. Hurrengo urtean, Markinako Udalak eta Eusko Jaurlaritzak dirulaguntza emon eusten, Espainiako Txapelketan parte hartzeko, baina babeslerik lortu ez genduan, dana bukatu zan. Beti egin dot lan eraikuntzako enpresa txiki batean, eta bertan jarraitzea erabagi neban. Automobilismoa oso sin-

"Carlos Sainz itzela da, profesionala, goitik behera. Eta noski, ikutu berezi bat dau, oso gitxi daben ikutu hori"

plea da: dirua badozu –taldea, babesleak–, hor zagoz; bestela, etxera.

Gatz egin jatzun mailaz jaitsi izana?

Jakin behar dozu non zagozan eta zer maila dozun. Espainiako Txapelketan ibili nintzanean, gauzak agian beste era batean egin ahal izan nebazan, baina buelta handirik ez deusot honerik emoten.

Zertan zabilz gaur egun?

Lagunak autoa erostera animatu ninduten eta orain zaletu mailako lasterketan hartzen dot parte: normalean Euskal Herriko, batzuetan Asturiasetik eta Galiziatik... Helburu seriozirik ez dot, ondo pasatzea besterik ez. Andreak dino alaba ikusi gura daua autoan eta oraindik zazpi urte dauz; beraz, denporea dot erretiroa hartzeko (kar, kar).

Nire Autoocasion NA

IMPORTAZIOA ETA SALMENTA



MUNGIALDE ETORBIDEA, 3 48160 DERIO-BIZKAIA
Mobiak: 686 97 06 41 - 649 16 77 12
Telefonoe-Fax: 94 454 51 92
www.nireautoocasion.com info@nireautoocasion.com

tik tak

EGUNEKO MENUA
lehenengo platera
bigarren platera
postrea
ogia
edaria

9€

T: 94 454 55 55
Bestorene 5, Behea
48160 DERIO

LOREGARBI

GARBIKETA ZERBITZUAK

Garbi-itxialak, orokorrean
Auzokoen konpainiak
Mauritxoko garbi-itxialak
Bulegoak eta lokalak
Oliniko enpresen garbiketa
Bastoreak
Zabere bilaketa



Beside Plaza, 1 - B° Aldekoa
48160 DERIO (Bizkaia)
loreagarbi@euskalnet.net

Tel: 94 406 49 92
656 712 443
Fax: 94 406 49 93

"Umeentzat jolas bat bezalakoa izateaz gainera, euskaraz egiten dute"

ALAITZ ARGANDOÑA ETA AITZIBER URIA | Kukuke antzerki-eskola

Kukuke Derioko antzerki-eskolak ateak berriro irekiko ditu 2020-2021 ikasturtean. Eskola Tximintx komunitatearen parte da, eta izena emateko epea zabalik dago jada. Izena ematea online egin daiteke (labur.eus/1Z6UA) edo tximintx@gmail.com helbide elektronikora mezu bat idatzita. Eskolaren nondik norakoak hobeto ulertzeko, bertan irakasle dabilen Alaitz Argandoña eta eskolako bi umeren ama den Aitziber Uria elkarrizketatu ditugu.

t/a: Tximintx komunitatea

Alaitz, urte mordo bat daramazu Kukuke antzerki eskolan irakasle. Zer nabarmenduko zenuke?

Familia bat osatu dugula: Kukukeko kide izandako ikasleek eta gurasoek betiko loturak sortu dituzte. Batzuetan, eskola zortzi edo bederatzirterekin utzi zuten ikasleak 14 urterekin itzuli dira. Gainera, nabarmentzekoa da behin baino gehiagotan adin-tartea handitu behar izan dugula, neba-arreba txikiek ere izena eman nahi zutelako edo, gehieneko adina gaindituta, ikasle batzuek ez zutelako eskola utzi nahi. Bestalde, eskola Derioko bizitzaren parte da, askotan herriko ekin-tzetan, jaietan eta Gure Señeak elkartearen ekitaldietan kasu, parte-hartze zuzena dugu eta.

Zer ikasten dute umeek eta gazteek Kukukun?

Dramatizazioaren arloan, sentimen-duak adierazten, eremu eszenikoa erabiltzen, ahotsa proiektatzen... baita hainbat pertsonaiaren rolean sartzen eta bakoitzari dagokion testu-papera ikasten ere. Halaber, ezinbestekotzat jotzen dugu

"Talde-lana oso garrantzitsua da: ikasleen arteko elkarreragina, nork bere burua ezagutzea, elkar onartzea..."

eginkizun dramatikorako erabiltzen dugun materiala ondo zaintzea eta kudeatzea. Talde-lana ere oso garrantzitsua da: ikasleen arteko elkarreragina, nork bere burua ezagutzea, elkar onartzea, elkarrekin lan egitea... Bestetik, euskararekiko harremana ere aldatzen da: zerbait akademikoa izatetik aisialdirako eta komunikazio naturalerako tresna eraginkorra eta baliagarria izatera pasatzen da.

Euskara erabiltzeko ez ezik umeak nolabait ahalduntzeko ere balio du eskolak?

Zalantzarik gabe, jolas dramatikoaren bidez eta euren artean sortzen den giro positiboari eta alaiari esker, eskola oso lagungarria da umeak ahalduntzeko edo behintzat ahalduntzen joateko; hala ere,

"Eskola oso lagungarria da umeak ahalduntzeko edo behintzat ahalduntzen joateko"

gurekin bakarrik astean behin egoten dira eta aktibatu beharreko beste faktore batzuk ere badaude: senideen arteko komunikazioa, aisialdiko jarduerak, hizkuntzarekiko nagusien jarrera... Batek zioenez, haur baten hezkuntza herri osoari dagokio, eta gure kasuan ere denon parte-hartze aktiboa beharrezkoa da umeak euskalduntzeko. Guk gurea betetzen dugu, baina beste arloen eta sektoreen inplikazioa ere beharrezkoa da.

Zer ikasi duzu zuk urte hauetan guztietan?

Pilo bat. Ikasleek irudimen izugarria dute eta ariketei mila buelta ematen dizkiete. Hori dela eta, astero zerbait berria jasotzen dut, zerbait interesgarria helarazten didate. Ondorioz, askotan nire pentsa-



Sendatu
Fisioterapia
Liliana Diaz Charry
elkargokide-zk.: 992

Aretxalde, 68 behea
48196 LEZAMA
vidicha@yahoo.com
688 763 457



Construcciones-Reformas
IÑIGO BARCENA
Igeltserotza orokorra

Espezializatea:
Xafra-lanak
Zoruak



☎ 944522910 - 665703512 - 652772018



*“Urduritasuna
kudeatzeko eta
aurrera egiteko
gaitasuna garatu
dute”*

kuntza hasi zuenean, eskolaz kanpoko ekintzak aztertu genituen eta antzerkia euskaraz egitea erakargarria iruditu zitzaigun. Nire garaian, neu ere antzerkian ibili nintzen, oso gustura; beraz, probatu genuen eta umeak gustura daude.

Bete dira zure itxaropenak?

Hasieran bakarrik nahi genuen umea euskaraz ondo pasatzea, eta gaur egun seme-alabak oso pozik doaz asteartero Kukukera. Eurentzat jolas bat bezalakoa da. Gainera, euskaraz egiten dute eta horrek asko poztzen gaitu, ez baitute euskara gehiegi erabiltzen.

Zer ikasi dute zure umeek eskolan?

Nire umeak oso sozialak dira eta ez dute komunikatzeko arazo handirik, baina, hala ere, lotsatiak dira. Antzeztu behar dutenean oso urduri jarri arren, urduritasuna kudeatzeko eta aurrera egiteko gaitasuna garatu dute, eta horrek harritzen nau.

Animatuko zenituzke gurasoek seme-alabak Kukukera ekartzera?

Gure esperientzia primerakoa izan da eta bada. Umeak oso pozik daude, eta irakaslea ez da “irakasle bat”: laguna da. Alabari galdetu diot baten bat animatuko lukeen Kukuken izena ematera, eta “noski” erantzun du, “oso ondo pasatzen dugu-lako eta jolasak egiten ditugulako”. Hori alabaren ikuspuntua da, baina gurasook hau ikusten dugu: umeek antzezlan bat prestatzen dute Gabonetarako, eta beste bat, ekainerako; antzezlanei lotutako dantzak eta abestiak ikasten dituzte eta obra konturatu gabe ikasten dute.



moldea ere aldatzen da. Esate baterako, helduenen taldean gaur egungo gaiak jorratu ditugu, hala nola bullyinga, matxis-moa eta alkohola, eta horiei buruz duten ikuspegiak harritu egin nau. Era berean, beterranoek berriak diren txikiekin lan egi-

ten dutenean adierazten duten trebetasunak ere harritzen nau.

Aitziber, zergatik eman zenuen ize-na Kukuken?

Egia esan, ez genekien oso ondo zer zen Kukuke. 2016an, semeak lehen hez-

GALAISIA
Estetika eta ile-apaindegia
94 453 04 85 - 94 471 10 51
Sabino Arana 1-3. SONDIKA

Goiri'78 s.l.
Zerbitzu ofiziala
Izarza Pol.
48150 Sondika
Bizkaia
94 453 25 15
94 453 39 31

auzoKide
Finken administratzailea
LORENA GAMBOA AGUIRRE
Txorisolo 4, behea B
48150 SONDIKA
634 410 470
auzokidefincas@gmail.com

0 kilometroko kalitatea



Ankapalu Berria sagardotegiko sukaldari ikasiek txingarretan prestatzen dituzte bertan dastatu daitezkeen plater guztiak. Ohiko sukaldaritzan oinarritzen dira eta produktuak etxetik ahalik eta hurbilen erosten dira, 0 kilometroak eskaintzen duen kalitatea mahaira ateratzea ezinbestekotzat jotzen dute eta. Besteak beste, oso ezagunak dira mimoz prestatzen dituzten piper gorri erreak eta arrain goxo-goxoa, baina, zalantza barik, plater izarra txuleta da. Gainera, Ankapalu Berria kartan *tomahawk*-a duen Bizkaiko jatetxe bakanetakoa da. Hori saiheskia ere duen behi-txuleta da eta su motelean egiten da lau orduan. Bestalde, roner gailua ere erabiltzen dute haragia prestatzeko: okela bere zukuan egiten da sei edo zortzi orduan eta emaitza oso-oso haragi samurra da. Otordua biribiltzeko, etxeko postre gozoetako bat hartuz gozatu gaitezke.

Kartaz gain, Ankapalu Berriak eguneko menu berezia eta sagardotegiko menua ere eskaintzen dizkigu kartaren kalitate-berme berberei eutsita. Halaber, anoak prestatzen dituzte, hala nola baikailaoa, tomatea, odolosteak eta txitxarroa sagardo-puntuarekin, eta iluntzean oilasko erreak dastatzeko aukera dago.

Oso ezagunak dira bere piper gorri erreak eta arrain goxo-goxoa, baina, zalantza barik, plater izarra txuleta da

Ankapalu Berria sagardotegia Larrabetzuko Loroño auzoan dago, basoan sartuta eta naturak inguratuta. Leku lasaia eta atsegina da, kalitaterik oneneko produktuak erabilia prestatutako plater goxoak gozatzeko inguru paregabea eskaintzen duena. Zero kilometroa ikur hartuta, Ankapalu Berriak proposamen gastronomiko anitz egiten dizkigu tradizioa eta kozinatzeke era berriak uztartuta.



Natura-ingurunean dagoela, leku aproposa da familiarekin joateko edota lasaitasunaz disfrutatzeke

Kartako zein menuetako jakiak sagardo eta ardo onekin jan ditzakegu: barruko jantokian kupela handi bat dago eta ardo-karta oso zabala da.

Ohiko sagardotegia

Ankapalu Berria antzinako baserria da eta ohiko sagardotegiaren itxura du. Barruan 100 bat lagun hartzeko jantokia du, eta kanpoaldean ere ehun lagunetik gora hartzeko tokia dago. Natura-ingurunean dagoela, leku aproposa da familiarekin joateko edota lasaitasunaz disfrutatzeke. Are gehiago, toki zoragarria da, musika entzuten dugun bitartean, patxadaz edari hordigarriren bat dastatzeko. Izan ere, hilabeterik bitan, bariku iluntzeetan, kontzertua izaten da bertan. Futbolzaleentzako topagunea ere bada, han partidak lagunartean ikusi daitezke eta. Gainera, oso aparkaleku handia du eta, hortaz, autoa aparkatzea ez da arazoa.

Ankapalu Berria sagardotegiak osasun-, higiene- eta segurtasun-neurri guztiak betetzen ditu COVID-19aren hedapena gelditzeko. Hori dela eta, lasaitasun eta konfiantza osoz hurbildu gaitezke haraino bere berezitasunez, usainez eta zaporeez gozatzera.



ANKAPALU

Sagardotegia



19:00etatik aurrera
oilasko erreak
dastatzeko aukera dago



Loroño auzoa 12
48195 LARRABETZU
Bizkaia

944 558 197



Kaleko txioa

la hile bi pasatu dira Joaquin Carmonaren istorioa komunikabideetan azaldu zenetik. Twitter gizarte-sarean @jokin4318 moduan da ezaguna eta atletismoaren gaineko postak idazten ditu. Hala ere, COVID-19aren eraginez ezarritako konfinamenduan idazteari utzi zion eta jarraitzaileek pentsatu zuten, beharbada, gaixotasunak eraman zuela. Ez zen horrela izan, ordea: kazetari batek Madrileko parke batean topatu zuen, eta han sei urte zaramatzan albisteazkar baina azkarrago zabaldu zen. Zamudio bere jaioterrira ere ailegatu zen.

t: Itxaso Marina Ondarroa

Carmona nahiko estu sumatu dugu telefonoaren beste aldean. "Nire istorioa argitaratu zutenean, banekien oihartzuna izango zuela, baina ez nuen pentsatzen hainbesterako izango zenik. Egun batzuk izango zirela esan zidaten; hala ere, egunak aste bihurtu ziren, eta asteak, hileak. Lana eman didate kiroldegi batean eta hura bukatzen dudanean txiokatzen hasten naiz, jendeak txiokatzen jarraitzea nahi du eta. Hainbat elkarrizketa egin dizkirate, Espainiako komunikabideetan zein atzerrikoetan, eta eskaintza eta proposamen asko jaso ditut, mezuak egunero... Gehiegi da eta krisi pare bat izan dut tarte honetan; batzuetan pentsatzen dut hobe zela anonimotasunean bizi nintzenean".

Carmona goren mailakoa da atletismoan eta Twitterren jarraitzaile asko ditu; kazetariak eta atletak, tartean. "Duela 17 urte izozki-postua galdu nuen eta etxeko arazoak ere hasi ziren -ura moztu zidaten-, baita nire beherakada ere. Azken sei urteetan parke batean bizi izan naiz, eta aurreko urteetan, ostatuaren eta kalearen artean. Gobernu kanpoko erakunde batek pisu batera joateko aukera eman zidan, baina pisu horiek inguru txarretan izaten dira eta horietan jende txarra izan ohi da... nahiago nuen kalean bizi. Orain

*"Batzuetan pentsatzen
dut hobe zela
anonimotasunean
bizi nintzenean"*



a: www.lasexta.com



*"Gogorra da
jendeak eta
batez ere zure
jarraitzaileek jakitea
kalean bizi zarela"*

*"Hainbeste urteren
ondoren, bitxia iruditu
zait haurtzaroko
lagunek oraindik
nirekin gogoratzea"*

ostatu batean nago". Kaleko bakardadea eta gogortasuna arintzeko, Carmona Madrilera bizitza kulturalaren ohiko kontsumitzailea zen. "Hemen musu truk joan daiteke pelikula ikustera, diskoen eta liburuen aurkezpenetara... Liburutegira ere joaten nintzen egunkariak eta liburuak irakurtzera... Baina hori guztia ezin nuen inorekin partekatu eta horregatik hasi nintzen Twitterren atletismoari buruz idazten: egunkarietan eta blogetan irakurritakoa txiokatzen nuen". Bere istorioa ezaguna egin baino lehen, 16.000 jarraitzaile zituen; ondoren, 36.000.

Carmonaren ordenagailu eramangarria amantatuta egon zen itxialdian, eta, hortaz, Twitter-kontua, isilik. Horrek Al-

fredo Varona La Bolsa Del Corredor egunkariko kazetaria kezkatu zuen. Apur bat ikertu ondoren topatu zuen. "Ni nahiko txarto nengoen: liburutegian txiokatu ohi nuen eta konfinamenduan liburutegiak itxita egon ziren; eta zabaldu zirenean, egunean bi orduan baino ez, eta soilik liburuak hartzeko... Itxialdian nahi beste egon nintzen kalean, eguzkitan, baina deskonfinamendua dela eta jendea berriro paseatzen hasi zen eta lotsa ematen zidan... Kazetari horrekin hitz egin eta gero, zalantzak izan nituen, ez bainekien ondo egin nuen edo ez: gogorra da jendeak eta batez ere zure jarraitzaileek jakitea kalean bizi zarela... Ondoren, artikulua argitaratu eta hurrengo egunean telebista-kamerak azaldu ziren parkean... Ostatura joan behar izan nintzen, hainbat dei jaso nituen, eta han, bat-batean, erabaki pilo bat hartu behar izan nituen".

Oroitzapenak

Joaquin Carmonak 1993ko urtarrilean alde egin zuen Zamudiotik. "Bilbora joan ginen bizitzera, baina apirilean etxetik irten eta Madrilera joan nintzen. Egia esan, hainbeste urteren ondoren, bitxia iruditu zait oraindik nirekin gogoratzea. Nik ia mutiko guztiak gogoratzen ditut, futboleko jokatzeko gurelako, eta neskak batzuk ere bai. Guztiak maite nindutela dut gogoan. Ama gaixorik zegoen eta etxeko giroa ez zen ona. Gero, OHOk zortzigarren urratsean kalean ibiltzeko utzi nion: etxeko gauzez arduratzen nintzen eta erosketak egitera baino ez nintzen irtetzen".

Haurtzaroko lagunek maitasunez gogoratzen dute Carmona eta bere egoeraz jakiteak harritu eta kezkatu ditu. "Quinillo -horrela esaten genion Quini Barçako futbolaria asko gustatzen zitzaiolako- oso mutil zintzoa zen, eta oso arduratsua. Era berean, oso ikasle bikaina zen", azaldu digu Olaia Aurre zamudioztarrak. Bere berri izan bezain laster, herriko lagunak batu ziren eta talde bat osatu zuten Carmonari laguntzeko. "Guregan arrastoa utzi duela jakitea nahi dugu, eta berarekin gogoratzen garela. Zerbait hobea merezi duela uste dugu eta horregatik ipini ditugu ekintza batzuk martxan". Horrela, bada, dirua batzeko kontu korrante bat -ES98 2095 0083 9091 1991 0775- sortu dute eta Athleticen eta Mallorcaren emandako hiruna elastiko jarri dituzte enkantean. Facebooken ere sortu dute taldea eta Carmonarekin WhatsApp bidez daude harremanetan.

Zamudion lege, atletismoari lotutako beste sektore batzuetan ere ekimenak bultzatu dituzte Carmonari laguntzeko. "Aukera guztiak ondo aztertu eta aprobetxatu behar ditut. Orain arte atletismoari buruz Twitterren idatzitakoa kazetariak eta adituek hartu dute kontuan eta komunikabideetan ere zabaldu da. Horren harira, eta egia esateko, txiokatzen lan egitea gustatuko litzaidake; hau da, orain arte egin dudana, baina soldatapean. Nolanahi ere, etorkizunari adi egon beharko dut, ea zer datorren". Guztiok zorte handia opa diogu.



DERIO, Seminarioa | Tf. 944 545 147
LEIOA, Iparragirre, 80 | Tf. 944 316 516

Ohea aldatzen dizugu, bizitza hobetzen dizugu
www.suitdelux.com



Armen First Nordic Low B
180x200 cm - 100 € / hain x 24 - 2.400 €



EXPERIENCE GAMA



Kalitateko produktua nahi badute ere, arrazoia zeinahi ere den,
une honetan gastu handirik egin ezin dutenentzat

Jairik gabeko uda; edo ia

Osasun- eta segurtasun-neurriak bermatu ezina dela eta, udalek eta jai-batzordeek bertan behera utzi dituzte herriko jaiak, edo horiek "normaltasun berrira" egokitu dituzte ekintza alternatiboak antolatuta. Sondikan, esaterako, San Joan gauean balkoietan eta leihoetan kolorea ipintzeko deia egin zitzairen herritarrei, eta Loium cyberpaellak antolatu zituzten. Abuztuan andramariak ospatzekoak ziren Larrabetzun, baina hango jai-batzordeak jakinarazi du aurten ez dela jairik egingo; Lezamako jai-batzordea, berriz, pandemiaren bilakaerari begira dago, ea irailean zerbait egiteko aukerarik dagoen.

t: Itxaso Marina Ondarroa

Intxurreta Larrabetzuko jai batzordeak adierazi duenez, erabakia hartzea oso zaila izan den arren, "bizi dugun egoera aintzat harturik, Andra Mari, San Bartolome eta San Emeterio jaietarako aurreikusitako egitaraua bertan behera uztea erabaki dugu". Jai-batzordeak hilabeteak eman ditu jaiak aurrera ateratzeko ahaleginetan, egoerara nola egokitu pentsatzen. "Baina konturatu gara ezin ditugula herritarren osasuna eta segurtatea behar bezala bermatu. Erabakiak buruhauste, kontraesan eta eztabaida asko sortu dizkigu, hala ere, uste dugu denon onerako izango dela".

Larrabetzuko jaietako ekintzarik jendetsuenak, besteak beste, karrozak eta afariak dira. "Aurten ezin ditugu antolatu eta erabaki genuen ez zuela merezi ezer egitea: azken batean, jaien alderik politena da guztion artean ospatu ahal izatea".


Intxurretak, beraz, ez du aurten inolako ekintzarik prestatuko, baina ez du bazter-tzen ekitaldi sinbolikoren bat egon ahal izatea, adibidez, kalejira. "Gainera, Kultur Bilguneak ekintza batzuk antolatu ditu udarako, eta alde horretatik lasai gaude, uztailan aisialdiari eta kulturari lotutako zerbait egon delako eta abuztuan ere izango delako". Nolanahi ere, eta pandemiak bilakaerak uzten badu, gogotsu

ekingo diote datorren urteko Andra Mari, San Bartolome eta San Emeterio jaiak prestatzeari. "Herritarrek gure erabakia onartu dute eta adierazi digute erabaki egokia izan dela".

Basobaltz Lezamako jai-batzordea pandemiaren bilakaerari adi-adi dabil egunotan, eta datozen asteetan ere adi ibiliko dira, hura zein den, irailean Andra Mari jaiak ospatuko baitituzte edo ez. "Egi-

Intxurreta: "Erabakiak buruhauste, kontraesan eta eztabaida asko sortu dizkigu, hala ere, uste dugu denon onerako izango dela"

Basobaltz: "Ez dira ohiko jaiak izango: ezin da gaueko kontzerturik eta jendetza handia batzen duten ekitaldirik antolatu"



a: www.festak.com

tekotan, argi izan behar da ez direla ohiko jaiak izango. Osasun- eta segurtasun-neurriak bete ahal izateko, ezin da gaueko kontzerturik eta jendetza handia batzen duten ekitaldirik antolatu. Beste era bateko ekintzak izan behar dira, egunekoak eta edukierari eta lehen aipatutako neurriei eutsita". Alderdi asko hartu behar dira kontuan, eta jai-batzordea hainbat batzar egiten dabil izan litezkeen ekintzak ahalik eta ondoen prestatzeko. Gainera, udalarekin dabilta harremanetan ideiak partekatzeko eta balizko egoerak aztertzeko.

Herrikoiagoak

Andramariak irailaren 4an, 5ean eta 6an ospatzekoak dira, eta, ahal dela, hila-ren 8an ere, zaindariaren egunean, zerbait egiteko asmoa dute. "Jaiak modu lasaia go eta herrikoiago batean ospatuko ditugu". Mozorro-jaitsierak hasiera eman ohi die Lezamako jaiei, eta nobedaderik ez bada go, aurtan ere ekintza hori –edo ekintza horretan oinarritutako ekitaldia, hobeto esanda– antolatu nahi dute "barikua ez desitxuratzeko". Hori bai, aldaketa nabarmenak egongo dira. "Aurtan ez da egongo ez jaitsierarik, ez karrozarik. Horien ordez, mozzorro-lehiaketa egingo da herritik, segurtasun-neurriak errespetatuz. Gaia gorria kolorea izango da".

"Beldur apur batekin gabiltza, ez da gikulako jendeak nola erantzungo duen; hau da, ekintzetan jenderik batuko ez den, edo, alderantziz, jendetza bilduko den. Aukera guztiak izan behar ditugu buruan, eta haiei ahalik eta ondoen erantzuteko



a: Idoia Andres

prest egon. Nolanahi ere, gogora ekarri nahi dugu, egoera txar honetan, ezinbestekoak direla nork bere burua zaintzea, distantzia mantentzea eta osasun- eta segurtasun-neurriak errespetatzea: horrela, errazagoa izango da denontzako".

Andramariekin batera, Legina auzoko eta Bolalekuko jaiak ospatzen dira Lezaman, baina aurtan ez da ekintzarik egongo. Kurtzeko jaiak ere hurrengo asteburuan izan ohi dira; hala ere, auzoko jai-batzordeak azaldu duenez, "jaiak batez

ere koadrilentzat eta familientzat dira eta, egoera ikusita, erabaki da ekitaldirik ez antolatzea; meza, ordea, egongo da, ziur asko". Sondikan, bestalde, San Roke eguneko erromeria bertan behera utzi dute eta pandemiaren bilakaeraren zain dau de Santa Kurtzeko jaiak ospatzeko ala ez ospatzeko erabakia hartzeko. "Momentuz itxarongo dugu eta ez dugu data hurbilago egon arte erabakia hartuko". Azkenik, Zamudioko auzoetako jaiak bertan behera gelditu dira eta bakarrik meza egingo da.



a: Gaizka Peñafiel



Bozketa digitala

t: Xabier Díaz / a: www.azlmsc.org

Uztailaren 11n, hauteskunde egunaren bezperan, Eusko Jaurlaritzak berretsi zuen gaixotasunaren ondorioz "mugikortasuna mugatua" zuten herritarrek ezin izango zirela hauteslekuetara joan⁽¹⁾. Eta ez hori bakarrik: bozkatzera joanez gero, "osasun publikoaren kontrako delitua" egingo zutela ohartarazi zien. Polemika normala da. Azken finean, zeini eman pisu handiagoa: bozkatzeko eskubideari ala denon osasuna zaintzeko neurriei? Bai, badakit polemika aurretik zetorrela, baina, orri hau teknologiar dagokionez, politika kontuak beste orri batzuetarako utziko ditugu, ados?

Pakopediaren⁽²⁾ egilearen artikulua bateg⁽³⁾ bultzatu nau gogoeta egitera: bozketa-sistema presentziala beharrezkoa da Internet bidezko erosketa eta transferentzien garaian? Txanpon elektronikoan, zibersegurtasun zentroen, *blockchain* edo gailu adimenduen garaian?

Estoniak 1997an hasi zuen gizarte digitalarentzako e-governance programa⁽⁴⁾. Ezkontzak, dibortzioak eta ondasun higiezinaren transakzioak izan ezik (bitxia da hiru hauek izatea), egun gobernuari lotutako ia izapide guztiak era digitalean egin daitezke. 2005ean, eta munduan lehenengo aldiz, I-Voting Internet bidezko sistema

erabili zuten estatuko hauteskundeak egiteko, eta 2007an, parlamentuko hauteskundeetarako.

Funtzionamendua ez da konplexua. "Aurre-bozketa" denbora-tarte batez, hautesleak NAN elektronikoaren baliokide baten bidez sistemara sar daitezke eta bozkatzeko aukera dute. Behin hori egin da, pertsonaren identitatea boto digital horretatik kentzen da eta Hauteskunde Batzorde Nazionalera bidaltzen da anonimotasuna bermatuz. Sistemak informazioa zifratu egiten du, hirugarren batek informazioa hartu edo aldatzea ekiditeko. Segurtasuna, pribatutasuna, eta informazioa osorik bermatzen dira⁽⁵⁾.

Bozkatzeko eskubidea

Nolanahi ere, urrutiko edozein bozketa-eremura, ohiko postaren bidezkoa barne, kezkak sortzen dira botoak behartu edo erosteko aukera dagoelako. Azken

1998tik, Euskadik boto elektronikoaren arloko hauteskunde-legeria dauka⁽⁹⁾, baina horrek ez du orain arte garapen handirik izan

finean, botoa etxetik edo nahi duzun lekutik eman daiteke, konfiantzakoak diren edo ez diren pertsonekin. Ohiko hauteslekuetan moduan, botoa ez da leku "babestu" batean ematen, hauteskunde-mahaiako kideen eta beste hautesle batzuen aurrean. Estoniaren irtenbidea da saioa hasi eta aurre-bozketa nahi adina aldiz bozkatzera. Boto bakoitzak aurrekoa baliogabetzen duenez, boto-emeleak beti izango du botoa geroago aldatzeko aukera. Erosleak edo botoa behartzen saiatu denak, bestalde, zaila izango du azken botoa zein izan den jakitea: ezin izango du erosketa edo hertsapena ondo atera den bermatu eta, hortaz, ez dio mereziko.

1998tik, Euskadik boto elektronikoaren arloko hauteskunde-legeria dauka⁽⁶⁾, baina horrek ez du orain arte garapen handirik izan. Egia da ordutik hona teknologiak asko aldatu direla eta, beraz, araudi berria beharko litzatekeela. Sistema hauen inguruko kezkak daudela⁽⁷⁾ ere egia da, baina zeren zain gaude?

Pandemia dela-eta hainbat pertsonak ezin izan dute bozkatu, eta askotan atzeritik bozkatzeko arazoak egon dira. Horrelako sistema bati esker aurrerapauso handia egingo genuke denon bozkatzeko eskubidea bermatzeko. Gainera, kontuan izan zer gertatu den: atzerriko botoak zenbatu aurretik, Bizkaian 100 boto baino gutxiagoko aldea egon da azken aulkia hartzeko, eta lurralde horretan guztira 7.967 ziren positiboak hauteskunde egunean⁽⁸⁾. Atera kontu.

(1) «Osasun publikoaren aurkako delitua» izango da gaixorik bozkatzera, *Eduarne Begiristain*, *berria.eus*, 2020/07/12

(2) <https://pacopedia.wordpress.com/>

(3) *Blockchain, elecciones y COVID-19:Votekeeper*, *Francisco Luis Benítez*, 2020/07/11

(4) <https://e-estonia.com/solutions/e-governance/i-voting/>

(5) Egia esateko, zifratze-kontuak ezin dira inoiz % 100ean bermatu, baina ondo egiten direnean ohiko sistemak baino askoz seguruagoak dira.

(6) https://www.euskadi.eus/web01-a2haukon/eu/contenidos/informacion/w_be_eusk_ant/eu_def/index.shtml

(7) *Why blockchain-based voting could threaten democracy*, *Lycas Mearian*, *computerworld*, 2019/08/12 <https://www.computerworld.com/article/3430697/why-blockchain-could-be-a-threat-to-democracy.html>

(8) KORONABIRUSAREN EGOERA EPIDEMIOLOGIKOA EUSKADIN (COVID-19) 2020/07/11 https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/boletin_coronavirus/es_def/adjuntos/11_julio_Boletin.pdf

(9) https://www.euskadi.eus/web01-a2haukon/eu/contenidos/informacion/w_be_eusk_ant/eu_def/index.shtml

Geure barruan otso bi ditugu

t: Juan Luis Goikoetxea / a: crossingenres.com

Natiboen erreserbako amerikarrek⁽¹⁾ – indioek– istorio polita eta oso sinplea kontatzen dute, inoiz ez ahazteko modukoa. Istorio horretan aitita agertzen da iloba gazteari berba egiten bizitzari buruz. Hau-xe diotso:

“Gutariko bakoitzarengan otso bi dau-de. Geure bularrean bizi dira elkarrekin, eta beti ari dira bata-bestearekin borrokan.

Lehen otsoa oso oldarkorra da, munduari biolentzia handia eta gorrotoa dio-na. Bigarren otsoa, oster, baketsua da, maitasuna eta argia dariola bizi dena.

Orduan iloba txikiak itauntzen dio aiti-tari jakin-min handiz:

–Bietarik zeinek irabazten du?

Aititak erantzuten dio:

–Zeuk jaten emango diozun otsoak!”

Guk zeini ematen diogu egunero jana-ria, erasoka dabilen otsoari ala baketsuari? Gehienetan erraz onartzen dugu pertso-

nen arteko batzuk onak direla, eta beste batzuk txarrak. Baina ez ditugu ezagutzen geure barruko otsoak. Egia esan, otsook ezagutzeko metodorik egokiena beraien ekintzei begiratzea da, jokabideetan erre-paratzea. Ustelkeria, adibidez, euro ba-karra lapurtzetik hasten da. *Fake news*ak gezur txiki batekin sortzen dira. Gero, as-tiro-astiro, txiri-txiri, aldamenekoari izen ona kentzea edo ideiak lapurtzea edo diru faltsuz ordaintzea, ohitura gaizto bihur-tzen da. Eta hasieran jokabide txarra zena, normala izatera igarotzen da, eta azke-nean ontzat hartzen da. Portaera horrekin gorrotodun otsoa, indarkeria zalea sendo-tu egiten da, potolotu ere bai.

Zein otsori ematen dio jaten gure ira-kurleak? Ederra litzateke otso mantsoa zaintzea, handi egin ahala trebatzea. Ho-rretarako, ordea, enpatia erakutsi beharko da; auzokoarekin totoa lan egin; euska-rari geu euskaldun izatea eskertu; planeta ez plastifikatu; zor zaigun askatasuna es-kuratu. Orduan lioke geure barruko otso onak txarrari irabaziko.

(1) Maryanne Wolf: “Reader come home”



**PELUKERIA
ESTETIKA
LARRABETZU**

Anguleri nº 2 Bajo - 48195 LARRABETZU
Tel. 944 558 144

**SARRIKOLA
OGITEGIA**

Euskal pastela
Baserriko ogia
Bizkotxoak
Hainbat tarta

Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84

**BASALBEITIKO
TXAKOLINA**

Bizkaitxo Txakolina
Denominazio Jaurerria

Goitioltza auzoa, 37
(LEZAMA)
94 455 61 46

**Baserritarren Alkartea
Lezama S. Coop.**

Aretxalde, 21 BIS
48196 LEZAMA
☎ 94 455 60 16
e-mail: lezama@fcae.org
Bazkideak: 144

*Pentsu
naturalak*

a: www.todosacomer.net



Pastea txibiagaz

Osagaiak (lau lagunentzat):

- 2 txibi garbi
- 350 g pasta
- 3 tipulin
- 4 berakatz-atal
- 300 ml tomate-saltsa
- Oliba-orioa
- Pipermin bat
- Gatza

Prestetako errea:

Pastea ur ugaritan egosiko dogu bizpahiru minutuan. Uretatik atara-

ko dogu. Tipulinak juliana eran zatituko doguz eta, zartagin baten, orio apur bat egaz erregosiko doguz. Erregosten diranean, pastea gehituko dogu

Beste alde batetik, txibia tiratan moztuko dogu. Zartagin baten, txanda bitan prijiduko doguz egosi ez daitezen. Txanda bakotxean orio apur bat, berakatz-atal bi (zatituta) eta pipermin zati bat. Su bizian prijiduko doguz minutu bian. Ontzi baten, pastea, tomate-saltsa (bero) eta txibia-zerrendak ipiniko doguz.

Sandia-sorbetea

a: www.pizcadesabor.com

Osagaiak (sei lagunentzat):

- 600 g sandia
- 50 g azukre
- 100 ml ur
- 250 ml limoi-izozki
- 25 g koko birrindu
- Menda-hostoak

Prestetako errea:

Katilu baten azukrea eta ura berotuko doguz, eta egosten bost minutuan izango dogu. Sandia txikituko dogu eta irabiagailuaren pitarrean apur bat irabiauko dogu. Jarabea gehituko dogu eta irabiauten jarraituko dogu. Sorbetea arraspauko dogu eta sei kopatan banatuko dogu. Koko birrindua botako dogu gainetik eta menda-hostoak erabilia apainduko dogu.



NEURTU ZURE ERAKUNDEAREN HIZKUNTZA EGOERA

6 PAUSOTAN

ZUK ZEUK, AZKAR ETA ERRAZ

BETE ZURE AUTO-DIAGNOSTIKOA

bai euskarari

baieuskarari.eus
/baieuskarariziurtagiria
@baieuskarari

Ziurtagiriaren Elkartea

Lan eta bizi euskaraz

ITURRIGANE, 2
SONDIKA

EGUNERO
8:00-22:00

635584941

Sondigarbi

GARBITEGIA



TXORIERRI Inmobiliaria

Justo Ajuria, 2 Sondika - Bizkaia
Tel./Faxa: 94 471 12 82 - 94 471 18 11
txori-erri@euskalnet.net

erregandik gertu

ABOLKUTARITZA - TASAZIOA
ALOKATZEAK - ENKE ALBATZEAK
SALEHOSKETAK
SEGUROS, BILBAOEN AGENTZIA

ADARVE KAFETEGIA

Gosariak
Plater konbinatuak
Pintxoak
GIRO ONA

Sollube, 2 DERIO

Tel: 94 608 95 31

Umeen txokoa: zazpi desberdintasunak

Ezetz zazpi desberdintasunak topatu irudi bien artean. Bukatzen duzunean, irudiak margotu eta moztu ahal dituzu.
a: www.lululataupe.com



Gomendioak

LITERATURA: NAGUSIAK

- Neskaren ipuina (Txalaparta), Margaret Atwood; itzulpena: Zigor Garro.
- Zaharkitze programatua, Eva Perez-Pons Andrade. Blas de Otero-Bilbo Uria nazioarteko poesia saria.
- Oroiminezko igandeak (Dakit), Ainara Maia Urroz.
- Pentsioen geroa (Elkar), Jon Fernandez San Martin.

LITERATURA: GAZTEAK

- Bi familia Xaturrentzat, Beatriz Yubero Ona; ilustratzailea: Amaia Arrieta Ugartondo.



Sudokua

			7	3			2
	1			2	6		
	4		8				
3	8						1
							8
			4			2	9
				7		8	6
7		6		8			4
		9					2

2	5	7	1	4	9	6	3	8
1	4	6	2	8	3	9	5	7
3	9	8	6	7	5	4	2	1
6	3	2	8	5	4	1	7	9
7	8	5	3	9	1	2	6	4
4	1	9	7	6	2	5	8	3
9	6	3	5	1	8	7	4	2
8	7	4	9	2	6	3	1	5
5	2	1	4	3	7	8	9	6

aldekone
hartz klinika
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa

- Especialitate guztiak zentro bakar batean
- Aurrekontua doan
- Especialitatea: umeak

Unita 7, behea
48160 DERIO (Bizkaia)

Alaia
fruta-denda

Etkez etxeko zerbitzua
Bertoko produktuak

Talleri, 5
48170 Zamudio
94 485 05 85

Familia osorako
kalitatezko arreta,
zure esku

ZERBITZU BERRIAK
Logopedia
Pedagogia
Kirmasajeria

clinica dental ZAINDUZ
hartz klinika

Txoriari etorbidea, 9 - Loria | Arteaga erakina | 48160 DERIO
94 454 01 01 | 657 79 54 45
info@dentazainduz.com | www.dentazainduz.com

Ikuskizunak

Derio

- > Gorka Aginagaldere bakarrikzeta. Abuztuaren 28an, 19:00etan, frontoian.
- > Magia Saloon Baker. Irailaren 5ean, 19:00etan, frontoian.



Irteerak

Derio

- > Familian egiteko mendi-irteera. Irailaren 6an, 09:00etan, frontoian.

Kirola

Derio

- > Trialsin erakustaldia. Abuztuaren 14an, 19:00etan, frontoian.

Musika

Derio

- > Aliron taldea. Abuztuaren 21ean, 19:00etan, frontoian.

Txapelketak

Derio

- > Bizkaiko Bertsolari Txapelketarako sailkapen-faseko saioa. Irailaren 24an, 18:30ean, Gurea Aretoan.

a: Bizkaiko Bertsolari Elkarte



Bestelakoak

Lezama

- > Jolas erraldoiak. Abuztuaren 7an, 18:00etan, frontoian. Lau urtetik 16 urtera bitartekoentzat.



Gorka Aginagalde. a: www.promotora600.com



komikia: Ana Galar

Konekta zaitez gurekin!



Facebook:
aikoraldizkaria



Twitter:
@Aikortxorierrri



Instagram:
aikor.aldizkaria



Webgunea:
www.aikor.eus



Zure argazkiak eta albisteak bidali




WhatsApp:
688 86 41 35



E-posta:
aikortxori@aikor.com

Parte hartu aikor.eus webgunean

Erregistratzeko, webgunearen goiko aldean ageri den SARTU botoiari klik egin



ERABILTZAILE BERRIA NAIZ ETA IZENA EMAN NAHI DUT aukeran klik egin

Kide bezala erregistratu nahi baduzu, eta zure **edukiak argitaratzeko** (argazkiak, hitzorduak, albisteak...) erabiltzaile arrunta bezala izena eman behar duzu, eta amaieran, aikortxori@aikor.com helbidera mezua bidali behar duzu zeure nahia jakinarazteko.

BERTOKO

musika-tresnak eta kultura



2020-21

**Matrikula eguna: irailak 8, 19:30ean
Kultura Etxean**



689 24 68 44



bertokozamudio@gmail.com



<https://www.facebook.com/bertokozamudio.soinutresnenelkartea>



@bertoko_zamudio

